DONOSTIA KULTURA ENPRESA ERAKUNDE PUBLIKOAREN, VICTORIA EUGENIA ANTZOKIA, SA-REN ETA SAN TELMO MUSEOA, SA-REN ALDETIKO LANEKO SEGURTASUNAREN, HIGIENE INDUSTRIALAREN, ERGONOMIA ETA PSIKOSOZIOLOGIA APLIKATUAREN ETA OSASUNAREN ZAINTZAREN (GINEKOLOGIA BARNE) ESPEZIALITATEETARAKO KANPOKO PREBENTZIO ZERBITZUA PROZEDURA IREKI BIDEZ KONTRATATZEKO LIZITAZIOA ARAUTUKO DUTEN ADMINISTRAZIO KLAUSULA PARTIKULARREN AGIRIA.

AURKIBIDEA

1. **KONTRATUAREN XEDEA**
2. **ERAKUNDE KONTRATUGILEAK ETA KONTRATAZIO ORGANOA**
3. **ESLEIPEN PROZEDURA**
4. **ALDAERAK**
5. **KONTRATUKO DOKUMENTAZIOA**
6. **KONTRATUAREN IRAUPEN-EPEA**
7. **OSAGAI EKONOMIKOAK**
8. **PREZIOAREN ORDAINKETA**
9. **PREZIOAK BERRIKUSTEA**
10. **PUBLIZITATEA**
11. **BEHIN BETIKO BERMEA**
12. **KONTRATATZEKO GAITASUNA**
13. **PROPOSAMENAK ETA DOKUMENTAZIOA AURKEZTEA**
14. **ESLEIPEN-IRIZPIDEAK**
15. **KONTRATAZIO MAHAIA**
16. **PROPOSAMENAK IREKITZEA**
17. **KONTRATUAREN ESLEIPENA**
18. **KONTRATUA HOBETU ETA FORMALIZATZEA**
19. **KONTRATUAREN ARDURADUNA**
20. **KONTRATUA GAUZATZEA**
21. **FUNTSEZKO KONTRATU BETEBEHARRAK**
22. **DATU PERTSONALEN BABESA**
23. **KONFIDENTZIALTASUNA ETA SEKRETU BETEBEHARRA**
24. **ERANTZUKIZUNA**
25. **ASEGURUAK**
26. **JABETZA INTELEKTUAL ETA/EDO INDUSTRIALA**
27. **ZEHAPENAK**
28. **KONTRATUA LAGATZEA**

IFK-CIF Q2000541I

Erregina Erregeordea, 8 – 20003 Donostia / San Sebastián
T. (0034) 943 481 150 **E.** donostiakultura@donostia.eus
www.donostiakultura.eus

29. **AZPIKONTRATAZIOA**

30. KONTRATUAREN ALDEKETAK

31. HARRERA ETA BERME-EPEA

32. KONTRATUA ETETEA

33. KONTRATUA AMAITZEA

34. DONOSTIA KULTURA ENPRESA ERAKUNDE PUBLIKOAREN ESKUMENAK.

35. ARAUBIDE JURIDIKOA

36. JURISDIKZIOA

I. Eranskina. Abal eredua.

II. Eranskina. Adierazpenen notario aktaren eredua, lizitatzaileak eskatzen den kaudimena ziurtatzeko edo gutxieneko bitartekoak kontratura atxikitzeko konpromisoa betetzeko beste entitate batzuen kaudimena eta/edo bitartekoak erabili behar baditu

III. Eranskina. Europako Kontratazio Agiri Bakarra (EKAB).

IV. Eranskina. Giza baliabideak eta/edo bitarteko materialak atxikitzeko konpromisoa.

V. Eranskina. Aitorpen erantzulea, enpresako lanpostuen % 2a desgaitasunen bat duten pertsonentzat uzteko betebeharra eta berdintasun-plana izateko betebeharra betetzen direla adierazteko.

VI. Eranskina. Formulak erabiliz ebalua daitezkeen irizpideei buruzko dokumentazioa.

VII. Eranskina. Laneko arriskuen prebentzioaren alorreko betebeharrak betetzen direla ziurtatzen duen aitorpen erantzulea.

VIII. Eranskina. Zerbitzariak non dauden eta horiei lotutako zerbitzuak non ematen diren adierazteko eredua.

IFK-CIF Q2000541I

DONOSTIA KULTURA ENPRESA ERAKUNDE PUBLIKOAREN, VICTORIA EUGENIA ANTZOKIA, SA-REN ETA SAN TELMO MUSEOA, SA-REN ALDETIKO LANEKO SEGURTASUNAREN, HIGIENE INDUSTRIALAREN, ERGONOMIA ETA PSIKOSOZIOLOGIA APLIKATUAREN ETA OSASUNAREN ZAINTZAREN (GINEKOLOGIA BARNE) ESPEZIALITATEETARAKO KANPOKO PREBENTZIO ZERBITZUA PROZEDURA IREKI BIDEZ KONTRATATZEKO LIZITAZIOA ARAUTUKO DUTEN ADMINISTRAZIO KLAUSULA PARTIKULARREN AGIRIA.

1. KONTRATUAREN XEDEA[1]

Prozedura honen bitartez, DONOSTIA KULTURA EEPk, VICTORIA EUGENIA ANTZOKIA, SAk eta SAN TELMO MUSEOA, SAk kontratista bat aukeratuko dute, Administrazio Klausula Berezien Agiri honen **Karatulak** (aurrerantzean, Karatula) bere **1. puntua**n ezartzen dituen zerbitzuen eskaintzarako.

Aipatu zerbitzuak Agiri honetan, Baldintza Teknikoen Pleguan eta kontratistaren proposamenean ezarritakoa betez gauzatuko da.

Kontratuaren zati ezberdinak sortaka banatu eta beren gauzatzea independentea aurreikusiko balitz, Karatularen **1. puntua**k ondokoak zehazten ditu: kontratua osatzen duten sorta ezberdinak; bere kasuan, lizitatzaile bakar batek bere proposamenak eginaz bila ditzaken gehieneko sorta-kopurua; bere kasuan, lizitatzaile bakoitzari esleitu dakizkiokeen sortak; kasu bakoitzean egokitzat joko liratekeen alderdiak.

Karatularen 1. puntuak kontratuaren CPV Kodea zehazten du.

IFK-CIF Q2000541I

2. ERAKUNDE KONTRATUGILEAK ETA KONTRATAZIO ORGANOA

2.1 ERAKUNDE KONTRATUGILEAK

DONOSTIA KULTURA EEP, VICTORIA EUGENIA ANTZOKIA, SA eta SAN TELMO MUSEOA, SA dira erakunde kontratugileak.

DONOSTIA KULTURA ENPRESA ERAKUNDE PUBLIKOAK (aurrerantzean, DONOSTIA KULTURA) prozedura administratuko du bere kontura eta, VICTORIA EUGENIA ANTZOKIA, SA eta SAN TELMO MUSEOA, SA sozietateen kontura

Hori horrela izanik:

- Hiru erakunde kontratatzaileetako bakoitzarekin egiteko kontratuak prestatu, eskaintza onena hautatu eta kontratuak esleitzeko esku-hartzeak DONOSTIA KULTURAK burutuko ditu esklusiboki.

- Esleipena argitaratu, lizitatzaileei jakinarazi eta Administrazio Klausula Partikularren Pleguko 17. klausulan eskatzen den dokumentazioak esleipendunak helarazi ostean, kontratu bana sinatuko da hiru erakundeetako bakoitzarekin, eduki berarekin, eta aipatu klausulan adierazitako epean.

---

1 Administrazio Klausula Partikularren Plegu honetan "kontratuaren" gainean egiten den aipamena DONOSTIA KULTURA ENPRESA ERAKUNDE PUBLIKOA, VICTORIA EUGENIA ANTZOKIA, SA eta SAN TELMO MUSEOA, SArekin sinatzeko lote bakoitzari dagokion kontratu bakoitzari egiten zaiola ulertuko da.

Hori horrela izanik, lizitazio honen xede diren zerbitzuak DONOSTIA KULTURAK, VICTORIA EUGENIA ANTZOKIA, SAk edo SAN TELMO MUSEOA, SAk eskatu eta kontrata ditzakete, Zerbitzuak eskatutako erakundeari fakturatuko zaizkio eta hark ordainduko ditu.

Bakoitzaren kontratuak sinatzen diren unetik aurrera, eskubide eta betebeharren araubidea, kontratuak egikaritu eta eteteko faseei dagokien guztian, hiru erakunde kontratatzaileetako bakoitzari indibidualki dagokiola ulertuko da.

Horrenbestez, Plegu hauetan DONOSTIA KULTURA erakundeari egiten zaion aipamen orokor oro, hurrengoari egina dela ulertu behar da:

- DONOSTIA KULTURAri, hiru erakunde kontratatzaile bakoitzarekin egiteko kontratuak prestatzeari, eskaintza onena hautatzeari eta kontratuak esleitzeari dagozkion esku-hartzeekin lotuta.

- Era berean, hiru erakundeetako edozeini, hots, DONOSTIA KULTURA, VICTORIA EUGENIA ANTZOKIA, SA eta SAN TELMO MUSEOA, SAri, dagozkien kontratuak formalizatu eta sinatzearekin eta horiek egikaritu eta eteteko faseen inguruko guztiarekin lotuta.

2.2. KONTRATAZIO ORGANOA

Kontratazio Organoa **Karatularen 2. puntua**n zehaztua dago. Honek, hala badagokio eta ezar daitezkeen zuzenbide pribatuko arauak jarraituz, egokitzat jotzen dituen pertsonak izendatu ditzake berariaz, kontratuarekin lotutako jarduera jakin batzuk gauzatzeko.

IFK-CIF Q2000541I

3. ESLEIPEN PROZEDURA

Kontratua prozedura ireki bidez esleituko da, Agiri honetan ezarritako esleipen-irizpideen arabera kalitate-prezio erlaziorik onena (aurrerantzean, eskaintzarik abantailatsuena) suposatzen duen eskaintza egin duen lizitatzailearen alde.

4. ALDAERAK

Lizitatzaileek aldaerak aurkezteko aukera, bere kasuan, **Karatularen 3. puntua**n zehaztua dago.

Aldaerak onartuko badira, **Karatularen 3. puntua**k horien gutxieneko baldintzak, modalitateak eta ezaugarriak zehaztuko ditu, bai eta kontratuaren xedearekin duten lotura ere.

5. KONTRATUKO DOKUMENTAZIOA

Esleipena eta gero formalizatuko den kontratuaz gain, kontratuko dokumentazioa izango dira ondoko dokumentuak ere:

- Administrazio Klausula Berezien Agiri hau eta bere Karatula.

- Baldintza Teknikoen Pleguan.

- Esleipendunak aurkeztu duen eskaintza.

- **Karatularen 4. puntua**n zehaztutako beste dokumentu guztiak.

Esleipendunak dokumentu horiek sinatu beharko ditu kontratua formalizatzeko egintzan, guztiak onartzen dituenaren froga gisa.

6. KONTRATUAREN IRAUPEN-EPEA

Kontratuaren iraupen-epea **Karatularen 5. puntua**n zehaztua dago.

7. OSAGAI EKONOMIKOAK

7.1 LIZITAZIOAREN OINARRIZKO AURREKONTUA ETA KONTRATUAREN PREZIOA

Kontratuaren oinarrizko aurrekontua **Karatularen 6.1 puntua**n zehaztua dago.

Kontratuaren prezioa, bere aldetik, **Karatularen 6.2 puntua**n zehaztua dago ere.

Aipatu kontratuaren prezioak kontratua exekutatzeko beharrezkoak diren kostu guztiak hartzen ditu barne; ondokoak, besteren artean, adierazpen huts gisa eta inolako mugarik ezarri gabe:

- Kontratua exekutatzeko beharrezkoak diren kostu guztiak, zuzenak zein zeharkakoak, betiere Agiri honetan eta Baldintza Teknikoen Pleguan adierazten denaren arabera. Ez da a posteriori onartuko aldez aurretik azken prezioan barne hartu ez diren kontzeptuengatiko fakturaziorik.

- Kontratuaren exekuzioak berezkoak dituen kontzeptu guztiei dagozkienak eta aipatu exekuziorako baliatutako langileei lotutako gastu guztiak (besteak beste, soldatak eta Gizarte Segurantza, oporrak eta aparteko ordainsariak, gauez eta jai-egunetan egiten diren lanak, langileen bajak edo gaixotasunak direla-eta egiten diren ordezkapenak, istripu indibidualetarako aseguruak, eta abar), bai eta zerga (BEZ kanpo), aseguru, lizentzia, garraio-gastuak, baimenak eta gainerako gastu orokor guztiak ere.

- Kontratuaren exekuzioan kontratistak erabili beharko dituen bitarteko, erreminta, ibilgailu, ekipo, instrumentu, informatika-ekipo eta gailu guztiak.

- Erakunde kontratugileak agintzen dituen lan- edo informazio-bilera guztietara bertaratzea, kontratuaren garapen egokia eta betetzea ahalbidetzeko helburuarekin.

- **Karatularen 6.1 puntua**n zehaztutako beste kontzeptu guztiak.

7.2 KONTRATUAREN BALIO ZENBATETSIA

Sektore publikoko kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legeak (aurrerantzean, SPKL), 2014ko otsailaren 26ko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014/23 (EB) eta 2014/24 (EB) Zuzentarauak Espainiako ordenamendu juridikora irauli duenak, 101. artikuluan dioenaren xedeetarako, kontratuaren balio zenbatetsiaren zenbatekoa **Karatularen 6.3 puntua**n zehaztuta dago.

IFK-CIF Q2000541I

Aipatu balio zenbatetsia SPKLren 101. artikuluak dioenari jarraiki kalkulatu da.

Aurreikuspen horrek ez dakar inolako konpromisorik erakunde kontratugilearentzat.

8. PREZIOAREN ORDAINKETA

Prezioa Karatulako 7. Klausulan adierazitakoaren arabera ordainduko da.

9. PREZIOAK BERRIKUSTEA

Karatularen 8. puntuan ezarritakoa aplikatuko da.

10. PUBLIZITATEA

Ondokoak argitaratuko dira erakunde kontratugilearen kontratatzailearen profilean:

- Lizitazioaren deialdiaren iragarkia.
- Kontratu-esleipenaren iragarkia.
- Kontratu-formalizazioaren iragarkia.
- SPKLren 63. artikuluan zerrendatutako beste informazio guztiak.

Erakunde kontratugilearen kontratatzailearen profil hori honako webgune honetan dago eskuragarri: http://www.contratacion.euskadi.eus

Halaber, lizitazioaren deialdiaren iragarkia eta kontratua formalizatzeko iragarkia Europar Batasuneko Egunkari Ofizialean argitaratuko dira.

Horrez gain, kontratuaren aldaketa, hala badagokio, Plegu honetako 30. klausularekin bat etorriz Kontratazio Organoak hala adostuta, Europar Batasuneko Egunkari Ofizialean argitaratuko da, SPKL Legeko 207.3. artikuluan adierazitako eran.

11. BEHIN BETIKO BERMEA

Eskaintza onena aurkeztu duen lizitatzaileak aparteko behin betiko berme bat eratu beharko du derrigorrez erakunde kontratatzaile bakoitzaren alde, **Azaleko 9. puntuan** adierazitako zenbatekoarekin.

Berme horiek modu eraginkorrean eratuak izan daitezen, dagokion erakunde kontratatzaileak eskatu behar ditu.

Eskaintzarik abantailatsuena aurkeztu duen lizitatzaileak aipatutako behin betiko bermeak jarri dituela egiaztatu beharko du. Horretarako, 10 baliodun eguneko epea izango du, aurrekoa egiteko eskaria Kontratazio-organoaren eskutik jasotzen duen egunaren biharamunetik hasita.

IFK-CIF Q2000541I

Aipatutako behin betiko bermeek SPKL Legeko 110. artikuluan zerrendatutako kontzeptuei erantzun beharko diete.

Bermeak SPKLren 108. artikuluan aurreikusten den moduetakoren batean aurkeztu ahal izango dira.

Abal moduan eratuz gero, Agiri honi **I. Eranskin** gisa gehitu zaion ereduaren araberakoa izango da.

Bermeen egiaztapena baliabide elektronikoen bitartez egiteko aukera izango da.

Bermeen gainean kontratistari eska dakizkiokeen zehapenak edo kalte-ordainak gauzatzen badira, kontratistak bermeak berrezarri edo handitu beharko ditu –dagokion zenbatekoan. Haiek gauzatu eta hamabost eguneko epea izango du. Hala egin ezean, dagokion kontratua suntsiarazteko arrazoi nahikoa izango da.

Kontraturen baten aldaketaren baten ondorioz haren prezioa aldatzen bada, kontratistak dagokion bermea berregokitu egin beharko du, aldatutako prezio berriarekin beharrezko proportzioa gorde dezan. Kontratistak hamabost eguneko epea izango du bermea egokitzeko, aldaketa erabakia jakinarazten den datatik aurrera.

Bermeen itzulketa eta kitapena SPKLren 111. artikuluak ezartzen dituen baldintzetan egingo da.

Zehazki, berme-epea amaitu eta kontratua behar bezala burutzen den arte edo kontratistaren ardura ez den zioren batengatik kontratua bertan behera uzten den arte ez da dagokien bermea itzuliko edo kitatuko.

Klausula honetan aurreikusi gabeko guztian, SPKLren 106. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoa izango da aplikatzekoa.

IFK-CIF Q2000541I

12. KONTRATATZEKO GAITASUNA

Erakunde kontratugilearekin kontratatu ahal izango dute jarduteko ahalmen osoa duten, kontratatzeko debekurik ez duten eta behar adina kaudimena frogatzen duten Espainiako zein atzerriko pertsona natural edo juridikoek.

Lizitatzaileek, halaber, kontratuaren xede diren zerbitzuak eskaintzeko eska daitekeen gaikuntza profesionala edo enpresa gaikuntza izan beharko dute.

Pertsona juridikoek kontratuaren esleipendun izateko aukera izango dute, baldin eta, kontratuko prestazioak haiei berez dagozkien helburu, xede edo jarduera esparrukoak direnean, haien Estatutuen edo sorrerako arauen arabera.

Nolanahi ere, erakunde kontratugilearekin kontratatzeko ahalmena izango dute Europar Batasuneko estatuetako edo Europako Ekonomia Espazioaren inguruko Akordioa sinatu duten estatuetako enpresa ez-espainiarrek, baldin eta ezarrita dauden estatuko legeriaren arabera kasuan-kasuko zerbitzua betetzeko gaituta badaude. Sektore Publikoaren Kontratuei buruzko Legearen 67. artikuluan aurreikusitakoa izango da aplikatzekoa.

Espresa horiek ezarrita dauden Estatuko legeriak kasuan-kasuko zerbitzua egin ahal izateko baimen bereziren bat eskatzen duenean, edo erakunde jakin bateko partaide izatea eskatzen duenean, baldintza hori betetzen dutela frogatu beharko dute.

Nazioarteko akordioen ondorioz Espainiak dituen betebeharrei kalte egin gabe, Europar Batasunekoak ez diren estatuetako edo Europako Ekonomia Espazioaren inguruko Akordioa sinatu duten estatuetako pertsona fisiko edo juridikoek honakoa justifikatu beharko dute, txosten baten bidez: atzerriko enpresaren jatorriko Estatuak, bere aldetik, enpresa espainiarrek SPKLren 3. artikuluan zehaztutakoen pareko erakunde, elkarte edo sektore publikoko erakundeekin eta Administrazioarekin, modu bertsuan, maila berean, kontratuak egiteko aukera edukitzea onartzen duela. Txosten hori dagokion Espainiako Ekonomia eta Merkataritza Bulegoak egin beharko du eta beste dokumentazio guztiarekin batera aurkeztu beharko da.

Merkataritzaren Mundu Erakundearen Kontratazio Publikoari buruzko Akordioaren sinatzaile diren Estatuetako enpresei dagokien elkarrekikotasunaren inguruko txostena ez da aintzatetsiko.

Erakunde kontratugilearekin kontratuak egin ditzakete, xede horrekin aldi baterako sortzen diren enpresari-elkarteek, eta ez dute eskritura publikorik formalizatu beharko, harik eta kontratuaren esleipena lortu arte. Edozein kasutan, SPKLren 69. artikuluan aurreikusitakoari jarraituko zaio.

Karatularen 10. puntuan zehaztutako gutxieneko baldintzak bete beharko dituzte lizitatzaileek, kaudimen ekonomiko eta finantzarioari eta kaudimen profesional zein teknikoari dagokienez.

Edozein kasutan, **Karatularen 10. puntua**n adierazitako giza baliabideak eta/edo bitarteko materialak atxikiko dira, gutxienez, kontratua exekutatzeko.

Horiez gain, **Karatularen 10. puntua**k bere kasuan jaso ditzakeen baldintza bereziak ere bete beharko dituzte lizitatzaileek.

Kontratuaren exekuzioari giza baliabide eta/edo bitarteko material zehatz batzuk atxikitzeko konpromisoa eskatuko balitzaie lizitatzaileei, konpromiso hori funtsezko kontratu-betebeharra izango da SPKLren 211. f) artikuluan aurreikusitako ondorioetarako. Urratuz gero, erakunde kontratugileak kontratua bertan behera uzteko eskubidea izango du.

Kontratistak kontratuaren gauzatzeari atxiki dion pertsona -bere langilea edo azpikontratatukoa izan- bere kabuz aldatuko balu, erakunde kontratugileak kendutako langileak beren lanpostuetara bueltatzeko eska diezaioke edo, bestela, azken hori ezinezkoa balitz kontratistaren ardura ez diren arrazoiengatik, prestakuntza eta eskarmentu berdinak dituen beste pertsonekin berehala ordezkatzea eska diezaioke. Pertsona horrek erakunde kontratugilearen berariazko baimena izan beharko du.

Eskatutako kaudimena eta/edo atxikiko diren bitartekoen inguruko konpromisoa egiaztatzeko, lizitatzaileek beste erakunde batzuen kaudimena eta/edo bitartekoak erabili ahal dituzte, bien arteko loturen izaera juridikoa dena dela. Kontratua exekutatzen den bitartean kaudimen eta/edo bitarteko horiek bere esku izango dituela frogatu beharko du halere eta erabilitako erakundeak ezingo du kontratatzeko debekurik izan.

Beste erakunde baten kaudimen eta/edo bitarteez baliatuko diren lizitatzaileek egoera hori 1. Gutun-azalean sartu beharreko adierazpen erantzulean (KEDBren II. Zatiko C atalean, zehazki) adierazi beharko dute.

IFK-CIF Q2000541I

Horrez gain, eskaintzarik abantailatsuena aurkeztu duen lizitatzaileak beste erakunde batzuen kaudimena eta/edo bitartekoak erabili nahi baditu, beharrezko bitartekoak bere esku izango dituela egiaztatu beharko du. Horretarako, aipatu erakundeen idatzizko konpromisoa (**II. Eranskin**ean jasotako ereduari jarraiki egina) aurkeztu beharko du.

Eskaintzarik abantailatsuena aurkeztu duen lizitatzaileak eskaturiko kaudimena eta/edo atxikipen-konpromisoa egiaztatzeko erabili dituen erakundeek Notario baten aurrean hartuko dute konpromiso hori; ondokoa jaso beharko dute: lizitatzaileak parte hartzen duen lizitazioaren baldintzen eragina ezagutzen dutela; aipatutako kaudimena dutela, dagokion ziurtagiria aurkeztuz, 17. Klausulan adierazten den moduan; eta aipatutako lizitatzailea esleipendun suertatzen bada, kontratua gauzatzeko beharrezkoak diren bitartekoak uzteko borondate ezeztaezina duela (Kode Zibilaren 1257.2 artikuluan xedatutakoa berariaz onartuko dute, eta bitartekorik ordezkatu edo aldatu behar bada, Administrazioak berariaz baimendu beharko du). Idatzi hori aurkeztuz gero, erakunde kontratugileak konpromiso hori onartzen duela adieraziko du, baldin eta lizitatzaile hori esleipendun gertatzen bada.

Eskaintzarik abantailatsuena aurkeztu duen lizitatzaileak konpromiso hori aurkeztu beharko du. Horretarako, 10 baliodun eguneko epea izango du, aurrekoa egiteko eskaria Kontratazio-organoaren eskutik jasotzen duen egunaren biharamunetik hasita.

Klausula honek jasotzen dituen gaitasunari, kaudimenari eta kontratatzeko debeku ezari buruzko baldintzak eskaintzak aurkezteko azken egunean bete beharko ditu lizitatzaileak, bai eta kontratua sinatzeko unean ere.

IFK-CIF Q2000541I

13. PROPOSAMENAK ETA DOKUMENTAZIOA AURKEZTEA

13.1. AGIRIAK ETA BESTE DOKUMENTU OSAGARRI GUZTIAK ESKURATZEA

Agiriak eta beste dokumentu osagarri guztiak erakunde kontratugilearen kontratatzailearen profilean egongo dira eskuragarri, lizitazioaren iragarkia argitaratzen den egunetik eta proposamenak aurkezteko epe osoan zehar.

13.2. AURKEZPENA

Proposamenak bide elektronikoak erabiliz aurkeztuko dira, SPKLren Hamaboskarren Xedapen Gehigarriak ezartzen dituen baldintzak betez, SPKLren aipatu xedapeneko 3. atalean jasota dauden egoeretakoren bat eman eta aipatua **Karatularen 11.1 puntua**n adierazi ezean.

Proposamenak bide elektronikoak erabiliz aurkeztu ahal izateko beharrezkoak diren informazio eta jarraibide tekniko guztiak, zifratzea eta dataren balioztatzea barne, Eusko Jaurlaritzaren Lizitazio Elektronikoko aplikazioaren webgunean jasota daude: http://www.contratacion.euskadi.eus

Bide elektronikoen bidezko proposamenen bidaltzea bi fasetan egingo da: eskaintzaren aztarna digitala igorriko da lehenik eta behin; aipatua jasotzean, proposamena bidalia dagoela ulertuko da ondorio guztietarako. Ondoren, proposamen bera igorriko da, 24 orduko gehieneko epearen barruan. Azken bidaltze hori epe barruan egingo ez balitz, eskaintza kendu egin dela ulertuko da.

Ondokoa da eskaintzaren aztarna digitala: bere sorrera-prozesuaren bitartez eskaintza beraren edukiaren eta beren arteko lotura eztabaidaezina ezartzen duen datu-multzoa. Aztarna honi esker, edukian egondako balizko aldaketak hauteman daitezke, eskaintzaren integritatea bermatuz. Espedientean sarturiko dokumentu-kopia elektronikoek indarreko legediak administrazio prozedura erkideari dagokionez zehazten dituen baldintzak bete beharko dituzte eta aipatuan jasotako ondorioak izango dituzte.

13.3. GUTUN-AZALEN EDO ARTXIBO ELEKTRONIKOEN EDUKIA

Lizitatzaileen proposamenek Agiri hau eta bere Karatula, Baldintza Teknikoen Plegua eta kontratu izaerako beste dokumentu guztiak bete beharko dituzte. Proposamen bat aurkezteak esan nahi du lizitatzaileak baldintza edo klausula guztien edukia salbuespenik gabe onartzen duela.

Gutun-azal edo artxibo elektroniko bakoitzak ondoren zerrendatuko diren dokumentuak eramango ditu, eta bertan dauden dokumentuen zerrenda zenbakitua jasoko du.

Artxibo elektronikoak izanez gero (proposamenak bitarteko elektronikoak erabiliz aurkeztu diren kasuetan) 1. Gutun-azala, 2. Gutun-azala eta 3. Gutun-azala izena eramango dute.

1. GUTUN-AZALA. "ALDEZ AURREKO BALDINTZEN BETETZEARI BURUZKO DOKUMENTAZIOA"

Lizitatzaileek ondoren aipatzen den dokumentazioa aurkeztu beharko dute:

1. Adierazpen erantzulea. Agiri honen **III. Eranskin**ean jasotako Kontratatzeko Europar Dokumentu Bakarraren inprimakia (aurrerantzean, KEDB) jarraituko du eta jarraian zehaztutako moduan beteko da:

    - - 2016ko urtarrilaren 5eko Batzordearen 2016/7 Exekuzio Erregelamenduak (EB), Kontratatzeko Europar Dokumentu Bakarraren inprimaki normalizatua ezarri duenak, jasotzen dituen Jarraibideei jarraiki beteko da KEDBa.

    - KEDBren "IV. zatia: Aukeraketa-irizpideak" atalarekin lotuta, lizitatzaileek A atala —"Aukeraketa-irizpide guztiei buruzko ohar globala"— baino ez dute bete beharko.

    - Lizitatzailea beste erakunde batzuen kaudimen eta/edo bitartekoetan oinarritzen bada Agiri honen 12. Klausulak dioenari jarraiki, erakunde horietako bakoitzak adierazpen erantzule bana aurkeztu beharko du. Adierazpen horrek KEDBko II. zatiko A ataleko ("Operadore ekonomikoari buruzko informazioa") eta B Ataleko ("Operadore ekonomikoaren ordezkariei buruzko informazioa") eta III. Zatiko informazioa jasoko du.

    - Zenbait enpresaburu aldi baterako enpresa-elkarte batean elkartzen direnean, parte hartzen duen enpresa bakoitzak bere adierazpen erantzulea aurkeztuko du. Honek, KEDBko II. zatitik V. zatira arte eskatzen den informazioa jasoko du.

2. **Karatularen 10. puntua**k dioena betez, gutxieneko giza baliabide eta/edo bitarteko material batzuen atxikipena eskatuko balitz kontratuaren exekuziorako, kontratuaren exekuzioari giza baliabideak eta/edo bitarteko materialak atxikitzeko konpromisoa hartuko dute lizitatzaileek, **IV. Eranskin**ean jasotako eredua erabiliz.

IFK-CIF Q2000541I

3. Aldi baterako elkarte batean bilduta aurkeztu nahi duten enpresaburuek elkartea eratuko dutenen izenak eta ezaugarriak, eta bakoitzaren partaidetza adierazi beharko dituzte. Esleipendun suertatuz gero, aldi baterako enpresa-elkartea eratzeko konpromisoa hartzen dutela ere adierazi beharko dute. Aldi baterako elkarte batean bilduta aurkeztu nahi duten enpresaburuak solidarioki behartuta egongo dira, eta elkartearen ordezkari edo ahaldun bakarra izendatu beharko dute. Ordezkari edo ahaldun horrek kontratuaren ondorio diren eskubideak baliatzeko eta betebeharrak betetzeko behar besteko ahalordeak izango ditu kontratua iraungi artean. Dena dela, enpresaburuek ahalorde erkidetuak ere eman ahal izango dituzte zenbateko handiko kobrantzak eta ordainketak egiteko.

4. 50 langile baino gehiago dituzten enpresen kasuan, adierazpen erantzulea, langileen %2ak gutxienez desgaitasunen bat duela adieraziz, 1/2013 Legegintzako Errege Dekretuak, azaroaren 29koa, desgaitasuna duten pertsonen eskubideei eta haien gizarteratzeari buruzko Lege Orokorraren Testu Bategina onartzen duenak, bere 42. artikuluan dioenarekin bat. Adierazpen ereduak **V. Eranskin**ean jasotako eredua jarraituko du.

5. 250 langile baino gehiagoko enpresen kasuan, enpresaren adierazpen erantzulea, 3/2007 Lege Organikoak, martxoaren 22koa, Emakumeen eta gizonen berdintasun eragingarrirakoak, bere 45. artikuluan arautzen duen berdintasun-plana ezarria duela adieraziz. Adierazpenak **V. Eranskin**ean jasotako eredua jarraituko du.

6. Atzerriko enpresek berariazko aitorpena aurkeztu beharko dute. Bertan, kontratuaren ondorioz zuzenean edo zeharka sor daitekeen gorabehera orotarako, Espainiako edozein mailatako epaitegi eta auzitegien jurisdikzioaren mende jarriko direla eta, hala badagokio, atzerriko jurisdikzio foruari uko egiten diotela adieraziko dute.

IFK-CIF Q2000541I

OHARRA:

Erakunde kontratugileak dokumentu egiaztatzaile guztiak, edo beren zati bat, aurkeztea eska diezaieke lizitatzaileei, 1. puntuan jasotako adierazpenaren indarraren edo fidagarritasunaren inguruko zalantzak badituzte edo prozeduraren garapen egokirako beharrezkoa bada.

Aurrekoari kalte egin gabe, enpresaburua Sektore Publikoko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialean sartua dagoenean, Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratisten Erregistro Ofizialean edo Europar Batasuneko Estatu kide baten datu-base nazional batean sartua dagoenean (enpresaren espediente birtuala, dokumentuak gordetzeko sistema elektroniko bat edo aurre-kalifikaziorako sistema bat) eta aipatu organoek datu horiek doan eskuratzeko aukera dutenean, ez da beharrezkoa izango aipatuetan jasotako datuen egiaztagiririk aurkeztea.

2. GUTUN-AZALA "BALIO-JUDIZIO BAT EGITEA ESKATZEN DUTEN IRIZPIDEEI BURUZKO DOKUMENTAZIOA"

Lizitatzaileek gutun-azal honetan **Karatularen 11.2 puntua**n ezarritako dokumentazioa aurkeztuko dute.

Lizitatzaileak arreta berezia jarri beharko du Gutun-azal honetarako dokumentuak prestatzerakoan, edukiari buruz adierazitako jarraibideak bete beharko baititu. Era berean, ez

da formulak erabiliz ebalua daitezkeen irizpideei loturiko dokumentazioaren inguruko zantzurik edo informaziorik eman dezakeen aipamenik egingo.

Printzipio horiek betetzen ez dituzten eskaintzak alboratu egingo dira, prozeduratik kanpo utziaz.

Erakunde kontratugileak, halaber, eskubidea du lizitatzaileek aurkeztutako informazioa egiazkoa dela ziurtatzeko beharrezkotzat jotzen dituen egiaztapen lanak egiteko edo dokumentazio osagarria eskatzeko.

Karatularen 12. puntuan ezarritakoari jarraiki kontratuaren gauzatzeari atxikiko zaizkion giza baliabideak baloratuko balira eta kontratistak aipatuak bere kabuz aldatuko balitu -bere langileak nahiz azpikontratatukoak izan-, erakunde kontratugileak kendutako langileak beren lanpostuetara bueltatzeko eska diezaioke edo, bestela, azken hori ezinezkoa balitz kontratistaren ardura ez diren arrazoiengatik, prestakuntza eta eskarmentu berdinak dituen beste pertsonekin berehala ordezkatzea eska diezaioke. Pertsona horiek erakunde kontratugilearen berariazko baimena jaso beharko dute.

3. Gutun-azala "FORMULAK ERABILIZ EBALUA DAITEZKEEN IRIZPIDEEI LOTURIKO DOKUMENTAZIOA"

Formulen bidez ebaluatuko diren irizpideen inguruko dokumentazioa **VI. Eranskin**ean jasotako ereduari jarraiki aurkeztu beharko dute lizitatzaileek.

Erakunde kontratugileak, esleipena egin aurretik edo ondoren, nahiz kontratuaren indarraldian, 1., 2. eta 3. gutun-azaletan aurkeztutako dokumentuen egiazkotasuna egiaztatu ahal izango du. Enpresak aurkeztutako datuetan edo zirkunstantzietan faltsutasunik aurkitzen bada, kontratua baliogabea izan daiteke, kontratistak berari egozteko moduko arrazoien ondorioz kontratua ez betetzeagatik.

IFK-CIF Q2000541I

14. ESLEIPEN-IRIZPIDEAK

Esleipen-irizpideak dagozkien haztapenarekin batera adierazita daude, **Karatularen 12. puntua**n.

15. KONTRATAZIO MAHAIA

Kontratazio Organoak Kontratazio Mahai baten laguntza izango du. Bere osaera **Karatularen 13. Puntua**n zehaztuta dago eta bere eginkizunak SPKLren 326.2 artikuluak zerrendatzen dituen horiek dira, SPKL-k berak eta bere araudi-garapenak esleitzen dizkion guztien artean.

16. PROPOSAMENAK IREKITZEA

Kontratazio Mahaiak 1. Gutun-azaleko ("Aldez aurreko baldintzen betetzeari buruzko dokumentazioa") dokumentazioa kalifikatuko du lehenik eta behin, garaiz eta taxuz. Aurkeztutako dokumentazioan konpon daitekeen akatsik antzemanez gero, erakunde kontratugileak hiru eguneko epea eman ahal izango du, lizitatzaileak akats horiek konpontzeko.

1. gutun-azala gehienez ere hogei egun naturaleko epean ireki beharko da, eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunetik zenbatzen hasita.

Ondoren 2. Gutun-azala irekiko da ("Balio-judizio baten mende dauden irizpideen inguruko dokumentazioa"), bere barruko dokumentuen azterketa eta balorazioa egiteko.

Balio-judizio baten mendeko ebaluazioa duten irizpideek formulen bidez ebaluatuko diren irizpideei dagokien haztapena baino haztapen handiagoa jasoko balute, balio-judizio baten mendeko ebaluazioa duten irizpideak **Karatularen 14. puntua**n ezarritako osaera duen Batzorde batek ebaluatuko ditu.

2. Gutun-azaleko dokumentazioaren azterketa eta ebaluazioa egin ostean, 3. Gutun-azala irekiko da ("Formulen bidez ebaluatuko diren irizpideen inguruko dokumentazioa").

3. Gutun-azala ("Formulen bidez ebaluatuko diren irizpideen inguruko dokumentazioa") ireki aurretik, lizitatzaileek balio-judizio baten mende dauden irizpideen inguruko dokumentazioaren balorazioak eman dituen emaitzak jasoko dituzte.

Hori egin ostean, 3. Gutun-azala irekiko da ("Formulen bidez ebaluatuko diren irizpideen inguruko dokumentazioa"), bere barruko dokumentuen azterketa eta balorazioa egiteko.

Nolanahi ere, 3. Gutun-azala ("Formulen bidez ebaluatuko diren irizpideen inguruko dokumentazioa") egintza publikoan irekiko dira, beti ere **Karatularen 11.1 puntua**k dioenari jarraiki proposamenak bitarteko elektronikoak erabiliz aurkeztu ez badira.

Aipatu 3. Gutun-azala ("Formulen bidez ebaluatuko diren irizpideen inguruko dokumentazioa") egintza publikoan irekiko balitz, 3. Gutun-azala ("Formulen bidez ebaluatuko diren irizpideen inguruko dokumentazioa") irekitzeko egintzaren data, ordua eta lekua lizitatzaile guztiei jakinaraziko zaizkie. Kontratugilearen profilean argitaratuko da aurreko guztia, egintza hasi baino 48 ordu lehenago, gutxienez.

Kontratazio Mahaiak baztertu egingo ditu 1098/2001 Errege Dekretuaren 84. artikuluan aurreikusitako arrazoietan barne hartuta dauden proposamenak. Halaber, aurkeztutako proposamenen zerrenda bidaliko dio Kontratazio Organoari, beheranzko ordenan sailkatuta eta **Karatularen 12. puntua**n klausulan ezarritako balorazio irizpideak kontuan hartuta. Era berean, eskaintzarik abantailatsuena zein den adieraziko du.

Lizitatzaileren bat kanporatzea erabakiko balitz, DONOSTIA KULTURAk berariaz jakinaraziko dio kanporatze hori kanporatutako lizitatzaileari.

Proposamena egin aurretik, nahi beste txosten tekniko eskatu ahal izango ditu.

Puntuaziorik onena lortu duen lizitatzailearen eskaintza bideraezintzat joko balitz, **Karatularen 12. puntua**n zehaztutako adierazleen arabera baxuegia delako, Kontratazio Mahaiak SPKLren 149. artikuluan ezarritako prozedura jarraituko du, lizitatzaileak dagokion justifikazioa egiteko.

Esleipen-proposamenak ez du inolako eskubiderik sortzen, proposatutako lizitatzailearen alde, erakunde kontratugilearen aurrean. Dena den, Kontratazio Organoak kontratua egindako proposamenari jarraiki esleitzen ez badu, erabaki hori arrazoitu egin beharko du.

17. KONTRATUAREN ESLEIPENA

IFK-CIF Q2000541I

Esleipenerako lizitatzailea aukeratzeko, Kontratazio Organoa bat etorriko da, oro har, Kontratazio Mahaiak egindako proposamenarekin. Aitzitik, Kontratazio Organoak proposamenetik bereizteko erabakia arrazoitu beharko du eta, hala badagokio, proposamenak behin betiko sailkatuko ditu.

Kontratazio Organoak Kontratazio Mahaiak egin duen proposamena onartu eta gero, erakunde kontratugileak errekerimendua egingo dio eskaintzarik abantailatsuena aurkeztu duen lizitatzaileari. Honek, hamar baliodun eguneko epea izango du, errekerimendua jaso eta biharamunetik hasita, ondoko dokumentazioa aurkezteko:

1. Eskaintzak aurkezteko azken egunean erakunde kontratugilearekin kontratatu ahal izateko legeak ezartzen dituen baldintza guztiak eta Agiri honen 12. Klausulan eskaturiko gaitasun-, kaudimen-baldintza guztiak bete eta kontratatzeko debekurik ez zuela egiaztatzeko dokumentazioa, jarraian zehaztutako moduan:

   Aldi baterako enpresa-bat osatzeko xedea duten enpresaburuek aurkeztu duten proposamenaren kasuan, aipatu dokumentazioa enpresa-elkartea osatuko duten enpresa guztiei dagokienez aurkeztu beharko da.

   (i) Lizitatzailearen eta, hala badagokio, haren ordezkariaren izaera, jarduteko eta ordezkatzeko gaitasuna egiaztatzeko ziurtagiriak:

   - Pertsona juridikoak diren enpresaburuen kasuan, enpresako eskritura edo sorrera agiria, Estatutuak edo sorrera egintza aurkeztu behar dira jarduteko gaitasuna ziurtatzeko (dokumentu horietan zehazten dira jarduera arautzen duten arauak). Dokumentu guztiak dagokien erregistro publikoan behar bezala inskribatuta egongo dira, pertsona juridiko motaren arabera dagokionean.

   - Europar Batasuneko kide diren estatuetako enpresa ez espainolei dagokienez, jarduteko gaitasuna ziurtatzeko, kasuan kasu Estatuko legeriaren arabera dagokien Erregistroan izena emanda daudela ziurtatu behar da, edo zinpeko aitorpen edo ziurtagiri bat aurkeztu bestela, ezar daitezkeen Europar Erkidegoko xedapenei jarraituz.

   - Atzerriko gainerako enpresaburuen jarduteko gaitasuna ziurtatzeko, dagokien estatuan Espainiak duen diplomazia misio iraunkorraren txostena beharko da, edo enpresaren egoitza dagoen lurralde esparruko kontsularen bulegoarena. Txosten horren bitartez justifikatu beharko dute atzerriko enpresaren jatorriko estatuak funtsean modu berdintsuan onartzen duela Espainiako enpresek hango administrazioarekiko eta SPKLren 3. artikuluan adierazitakoen pareko sektore publikoko erakunde, organismo edo entitateekiko kontratazioetan parte hartzea.

     Merkataritzaren Mundu Erakundearen Kontratazio Publikoari buruzko Akordioaren sinatzaile diren Estatuetako enpresei dagokien elkarrekikotasunaren inguruko txostena ez da aintzatetsiko.

   - Pertsona fisikoak diren enpresaburuen kasuan, nortasun agiria nazionala edo dagokien Estatuko agiri baliokidea aurkeztuko da jarduteko gaitasuna ziurtatzeko.

   - Ordezkari gisa aurkezten diren pertsonek, edo proposamenak beste norbaiten izenean sinatzen dituztenek, nortasun agiri nazionalaren kopia aurkeztuko dute, bai eta horretarako ahalorde askietsia ere. Enpresa pertsona juridikoa bada, Merkataritza Erregistroan inskribatuta egongo da ahalordea, Merkataritza Erregistroaren Araudiko 94. artikuluan

IFK-CIF Q2000541I

aurreikusitakoak horrela eskatzen badu, edo, hala badagokio, dagokion erregistro publikoan aurreikusitakoak eskatzen badu, dagokion pertsona juridiko motaren arabera.

Aurkeztuko diren dokumentu horiek guztiak jatorrizkoak edo behar bezala konpultsatutako kopiak izango dira.

Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratisten Erregistro Ofizialean edo Estatuko Lizitatzaile eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialean inskribatuta dauden lizitatzaileek Erregistroaren ardura duen legelariak emandako ziurtagiriaren kopia konpultsatua aurkez dezakete, (i) atalean aipatutako dokumentazioaren ordez. Inskripzio-ziurtagiriarekin batera, lizitatzaileak ziurtagiriak adierazitakoa aldatu ez dela adierazten duen aitorpen erantzule sinatu bat aurkeztuko du.

(ii) Agiri honen 12. Klausulan eskaturiko kaudimen ekonomiko eta finantzarioa eta teknikoa edo profesionala egiaztatzeko dokumentazioa.

- Kaudimen ekonomikoa eta finantzarioa. Bere kasuan, Lizitatzailearen urteko negozio-bolumena honela egiaztatuko da:

  - Onartutako eta Merkataritza Erregistroan erregistratutako urteko kontuak, enpresaburua erregistro horretan sartua balego; eta, bestela, dagokion erregistro ofizialean erregistratutako horiek. Merkataritza Erregistroan erregistratuta ez dauden norbanako enpresaburuek beren inbentario-liburuak eta Merkataritza Erregistroak legeztatuko urteko kontuak aurkeztuko dituzte.

  - Lizitatzaileak sinaturiko adierazpen erantzulea, bere negozio-bolumena adieraziz.

- Kaudimen teknikoa edo profesionala. Bere kasuan, azken hiru urteotan emandako zerbitzuen edo egindako lanen zerrenda aurkeztuz egiaztatuko da eskaturiko kaudimena. Horien zenbatekoa, data eta hartzailea -publiko zein pribatu- jaso beharko da. Eskainitako zerbitzuak edo lanak organo eskudunak luzatu edo ikus onetsitako ziurtagirien bidez egiaztatuko dira, hartzailea sektore publikoko erakunde bat denean. Hartzailea subjektu pribatua bada, honek luzatutako ziurtagiri baten bitartez. Ziurtagiri horren ordez, bere esku dituen dokumentuak aurkezteko aukera izango du lizitatzaileak, bere adierazpen batekin batera. Aipatu dokumentuek emandako prestazioa egiaztatu beharko dute.

- Sailkapena. Dagokionean, eskuduntza duen organoak luzatutako ziurtapena aurkeztuz egiaztatuko da sailkapena eta, horrekin batera, lizitatzaileak sailkapena indarrean dagoela ziurtatzen duen eta ziurtapenean barne hartutako ezaugarriak aldatu ez direla ziurtatzen duen enpresaren aitorpen erantzulea aurkeztuko du. Esleipendun suertatuz gero, berriro aurkeztuko da agiria, kontratua formalizatzean.

  Ziurtapen horrekin lizitatzailea aipatutako talde eta azpitaldeen sailkapena, adierazitako kategoriaren parekoa edo gehiago, duela ziurtatuko da.

  Ziurtapen horrekin, halaber, Klausula honen 1. (i) atalean adierazitako baldintzak ziurtatuko dira, hau da, enpresaren eta, hala badagokio, bere ordezkariaren jarduteko gaitasuna ziurtatuko da.

(iii) Lizitatzailea SPKLren 71. artikuluan ezarritako kontratatzeko debekuetan erori ez dela egiaztatzen duen testigantza judiziala edo administrazio-ziurtapena.

IFK-CIF Q2000541I

Eskumeneko agintaritzak agiri hori luzatu ezin badu, administrazio-agintaritza, notario publiko edo elkargo profesional kualifikatu baten aurrean emandako aitorpen erantzule bat aurkez daiteke.

(iv) **Karatularen 10. puntua**n, dagokionean, ezarritako baldintza berezien betetzea egiaztatzen duen dokumentazioa.

2. Bere kasuan, kontratua gauzatzeko hitz emandako giza baliabideak eta bitarteko materialak benetan esleitu izanaren egiaztagiriak.

(i) Kontratua gauzatzeko hitz emandako giza baliabideei dagokienez, bere kasuan, aukeratutako lizitatzaileak ondoko dokumentazioa aurkeztu beharko du:

- Kontratua gauzatzeko hitz emandako langile guztien izen-deiturak, gehi eskatutako baldintzen betetzea egiaztatzen duten curriculum vitaeko beren fitxak:

  1. Titulu akademiko ofiziala.

  2. Eskarmentua dagokion arloan.

  3. Erakunde kontratugileak eska zezakeen beste edozein informazio.

- Hitz emandako giza baliabide horiek guztiak benetan esleitu izanaren egiaztagiriak.

- Lizitatzaileak sinatutako erantzukizunpeko adierazpena, kontratua gauzatzeko konprometitutako giza baliabideak bere giza baliabide guztiak ez direla adierazten duena.

Nabarmendu, bestalde, datuen babeserako aplikagarria den arautegiak dioena betez eta giza baliabideei buruzko aurreko dokumentazioak barne daraman informazioaren izaera aintzat hartuz: (i) beren jasotzeak eta erabilerak datuen tratamendua suposatzen duela lizitatzailearen aldetik eta aipatua Tratamenduaren Arduradun dela; eta (ii) Klausula honetan ezarritakoa betez DONOSTIA KULTURAri egiten zaion informazio horren igortzea datuen komunikazio bat dakarrela eta lizitatzailea, kasu honetan, lagatzailea izango dela.

Ondorio horietarako, aurreko idatz-zatian adierazitako datuen tratamenduari eta komunikazioari dagokionez datuen babesaren arloan indarreko legediak lizitatzaileari ezartzen dizkion betebehar guztiak bete beharko ditu aukeratutako lizitatzaileak. Bereziki, eta Tratamenduaren Arduradun den heinean dituen beste betebehar guztiei kalte egin gabe, hautatutako lizitatzaileak bermatu beharko du, bere erantzukizun esklusiboaren pean, datuen komunikazio horri buruzko zilegitasun- eta informazio-eskakizunak betetzen dituela. Eta baldintza hori DONOSTIA KULTURAren aurrean frogatu ahal izan beharko du, horrela eskatzen zaionean.

(ii) Kontratua gauzatzeko hitz emandako bitarteko materialei dagokienez, bere kasuan, aukeratutako lizitatzaileak ondoko dokumentazioa aurkeztu beharko du:

- Kontratua gauzatzeko hitz emandako bitarteko materialak zehaztea, eskaturiko baldintzak bete direla egiaztatzen duen dokumentazioarekin batera.

IFK-CIF Q2000541I

- Hitz emandako bitarteko material horiek guztiek benetan esleitu izanaren egiaztagiriak.

Erakunde kontratugileak, halaber, eskubidea du lizitatzaileek aurkeztutako informazioa egiazkoa dela ziurtatzeko beharrezkotzat jotzen dituen egiaztapen lanak egiteko edo dokumentazio osagarria eskatzeko.

3. Agiri honen 11. Klausulan aurreikusitako behin betiko bermeak eratu direla ziurtatzen duen frogagiriak.

4. Hala badagokio, adierazpenen notario akta aurkeztuko da, eskatzen den kaudimena duela eta/edo kontratura gutxieneko bitartekoak atxikitzeko konpromisoa beteko duela ziurtatzeko xedearekin lizitatzaileak beste erakunde batzuk erabiltzea aurreikusten badu, **II. Eranskin**ean jasotako ereduaren arabera.

5. Hala badagokio, aldi baterako enpresa elkartearen lege-sorrera ziurtatuko da. Aldi baterako enpresa elkartearen arduraduna edo ahalordea izendatuko da eta nahikoa botere edukiko du kontratua iraungi bitartean eskubideak gauzatzeko eta betebeharrak betetzeko.

6. Laneko arriskuen prebentzioaren alorreko betebeharrak betetzeari buruzko aitorpen erantzulea, **VII. Eranskin**aren arabera.

Erakunde kontratugileak halaber, eskubidea du lizitatzaileek aurkeztutako informazioa egiazkoa dela ziurtatzeko beharrezkotzat jotzen dituen egiaztapen lanak egiteko edo dokumentazio osagarria eskatzeko.

Aurkeztutako dokumentazioan konpon daitekeen akatsik antzemanez gero, erakunde kontratugileak hiru eguneko epea eman ahal izango du, lizitatzaileak akats horiek konpontzeko.

Eskatutako dokumentazioa ez bada epe barruan aurkeztu edo aurkeztutako dokumentazioak zuzenezinak diren akatsak edo ez egiteak agertzen baditu, lizitatzaileak eskaintza kendu duela ulertuko da. Ondorioz, lizitazioaren oinarrizko aurrekontuaren % 3aren (BEZ gabe) pareko zenbatekoa ordaintzea eskatuko zaio, zehapen gisa. Eta eskaintzen sailkapenaren arabera ondoren datorren lizitatzaileari aipatu dokumentazioa aurkeztea eskatuko zaio.

Kontratazio Organoak kontratuaren esleipena adostuko du, aipatutako dokumentazioa jaso eta hurrengo bost egun baliodunen barruan eta proposamenak irekitzen diren egunetik gehienez ere hiru hilabeteko epean.

Esleipena ebazpen arrazoitu bidez erabakiko du Kontratazio Organoak. Halaber, hautagaiei edo lizitatzaileei jakinaraziko zaie, jakinarazpenak jasotzeko aukeratu duten bidea erabiliz. Azkenik, erakunde kontratugilearen kontratatzailearen profilean argitaratu beharko da, 15 eguneko epean.

18. KONTRATUA HOBETU ETA FORMALIZATZEA

Kontratuak formalizatuz hobetuko dira.

Kontratuak dokumentu pribatuan formalizatuko dira, lizitazioaren baldintzak zehaztasun osoz beteko dituztenak. Kontratuak formalizatzeko dokumentuetan ezingo da, inolaz ere, kontratazioaren baldintzak aldatzen dituen klausularik sartu.

IFK-CIF Q2000541I

Esleipendunak, halere, kontratuak eskritura publiko bilakatu daitezen eskatu ahal izango du; kasu horretan, bere kontura izango dira sortutako gastuak

Kontratuaren ondorioz kontratistak datu pertsonalak erakunde kontratatzailearen kontura tratatu behar baditu, esleipendunak, kontratua formalizatu aurretik, erantzukizunpeko adierazpen bat aurkeztu beharko du, Klausula Administrazio Partikularren Orri honi VIII. eranskin gisa erantsitako ereduaren arabera. Adierazpen horretan, datu pertsonalen tratamenduari euskarria ematen dioten zerbitzarien kokapen fisikoa eta zerbitzu horiek zein lekutatik emango diren identifikatu beharko du.

Kontratu bana sinatuko da, eduki berarekin, DONOSTIA KULTURA, VICTORIA EUGENIA ANTZOKIA, SA eta SAN TELMO MUSEOA, SArekin.

Formalizazioa jakinarazpena lizitatzaileei eta hautagaiei bidali eta hamabost baliodun eguneko epea igaro ondoren egingo da, inoiz ez aurretik.

Kontratuen formalizazioa, dagokion kontratuaren batera, kontratua burutu eta hurrengo hamabost egunetan argitaratu beharko da erakunde kontratugilearen kontratatzailearen profilean. Gainera, formalizazioaren iragarkia Europar Batasuneko Egunkari Ofizialean argiratu beharko da. Horretarako, kontratazio organoak iragarkia kontratua formalizatu eta 10 egunera igorriko du Europar Batasuneko Egunkari Ofizialera beranduenez.

Esleipendunari egotzi dakizkiokeen arrazoiak direla eta ezingo balitz/lira kontratua/k zehaztutako epearen barruan formalizatu, esleipendunak lizitazioaren dago(z)kion kontratu(ar)en oinarrizko aurrekontuaren -BEZ kanpo- %3aren pareko zenbatekoa ordaindu beharko du, zehapen gisa. Zenbateko hori dagokion behin betiko bermetik hartuko da, hasiera batean, SPKLren 71. artikuluko 2. idatz-zatiko b) hizkian ezarritakoari kalte egin gabe. Kasu honetan, kontratuak eskaintzen sailkapenean hurrengo postuan dagoen lizitatzaileari esleituko zaizkio, Agiri honen 17. klausulan exijitutako dokumentazioa aurkeztu eta gero. Hamar egun balioduneko epea izango du lizitatzaileak dokumentazio hori aurkezteko.

IFK-CIF Q2000541I

19. KONTRATUAREN ARDURADUNA

Kontratazio Organoak kontratuaren arduradun bat izenda dezake. Arduradun horren lana izango da kontratuaren gauzatzea gainbegiratzea eta hitzartutako zerbitzua behar den bezala eskaintzen dela ziurtatzeko jarraibideak ematea eta gauzatzea, erakunde kontratugileak eman dizkion eskumenen barruan.

Kontratuaren arduraduna pertsona fisiko edo juridiko bat izan daiteke, erakunde kontratugilearen barrukoa zein kanpokoa. Jarraibide horiek zuzenean jakinaraziko zaizkio kontratistak izendatutako koordinatzaileari.

Kontratuaren arduradunak emandako argibideak derrigorrez betetzekoak izango dira kontratistarentzat.

20. KONTRATUA GAUZATZEA

Kontratua jarraian adierazten diren baldintzen arabera exekutatuko da:

a) Kontratuaren baldintzetan, Administrazio Klausula Berezien Pleguan eta bere

Karatulan, Baldintza Teknikoen Pleguan eta kontratistak aurkeztu duen eskaintzan zein kontratuaren interpretazioari dagokionez erakunde kontratugileak erakunde kontratistari eman dizkion jarraibideetan adierazitakoa jarraituko da kontratua gauzatzeko.

b) Kontratua lan arloko, Gizarte Segurantzako eta laneko osasun eta segurtasun arloko indarreko lege-xedapen, arau eta konbentzio ororen mende dago.

Testuinguru horretan, beren ebaluaziorako balio-judizio bat egitea eskatzen duten irizpideen inguruko dokumentazioa barne hartzen duen 2. Gutun-azalean, esleipendun suertatuz gero kontratua gauzatuko duten langileei -enpresakoak zein azpi-kontratatutakoak- aplikatuko zaien hitzarmen kolektiboa adierazi beharko dute lizitatzaileek. Enpresa esleipendunak kontratu honen xede den jarduera gauzatuko duten langileei aplikatuko dien hitzarmen kolektiboari buruzko informazioa esleipenaren ebazpenean sartuko da eta kontratatzailearen profilean argitaratuko da.

Horrez gain, kontratua esleitua izan eta gero langileei benetan aplikatuko zaizkien baldintzen inguruko eskatutako informazio guztia Karatularen 16. Puntuan adierazitako baldintzetan eskaintzera behartuta egongo da esleipenduna.

Kontratuaren gauzatzean zehar, langilearen maila profesionalaren arabera hitzarmen kolektiboak ezartzen duen ordainsaria ordaindu beharko du esleipendunak. Aipatu ordainsariak ezingo du, inolaz ere, hitzarmenean jasotako horren azpitik egon.

Atal honetan ezarritako konpromiso hori funtsezko kontratu-betebeharra eta gauzatze-baldintza berezia izango da SPKLren 211. f) artikuluan aurreikusitako ondorioetarako. Urratuz gero, erakunde kontratugileak kontratua bertan behera uzteko eskubidea izango du.

c) Kontratua kontratistaren arriskuz eta ausaz gauzatuko da.

d) Erakunde kontratugileak kontratu-betebeharrak egokiro betetzen direla eta guztiak behar den bezala gauzatzen direla kontrolatu, egiaztatu eta gainbegiratu dezake, edozein unetan eta edozein bitarteko erabiliz.

Xede horrekin, erakunde kontratugileak egokitzat jotzen dituen kanpo-laguntzak jasoko ditu, kontratu-betebeharrak behar den bezala betetzen direla egiaztatzeko edo horien auditoretza egiteko, bai eta lanak kalitate-maila egokiarekin garatzen direla egiaztatzeko ere.

Erakunde kontratugileak zerbitzuen inguruan eskatzen dizkion datu guztiak aurkeztu beharko ditu kontratistak. Beharrezko laguntza guztia eskainiko du horretarako, kostu gehigarririk gabe. Zenbait kasutan, kontratatutako zerbitzuen lan, administrazio, edo bestelako alorretako dokumentazioa eman beharko du ere.

Kontratistak ez du oztoporik jarriko erakunde kontratugileak egiten dituen ikuskapen- eta kontrol-lanetan.

Hala ere, erakunde kontratugileak edozein motatako ez betetze edo eragozpen antzeman egiten badu, kontratistak izendatutako koordinatzaileari jakinaraziko zaio zuzenean. Honi dagokio, azken batean, zerbitzua eskaintzen duten langileen gainbegiratzea antolatzeko ahalmena edo, dagokionean, haiek zigortzekoa ere.

e) Langile guztiak enpresa kontratistaren mendekoak izango dira. Kontratistarenak dira

IFK-CIF Q2000541I

bere enpresa izaerari dagozkion eskubideak eta betebeharrak eta ezin izango zaio erakunde kontratugileari erreklamaziorik egin dagozkion lan harremanen horien edo gainerako betebehar guztien ondorioz.

Kontratista izango da arduradun bakarra zerbitzua gauzatzeko ardura duten langileei –propioak zein noizean behinka azpikontratatzen diren enpresetakoak- lotutako edozein ezbehar edo erreklamazioren aurrean (judiziala edo estrajudiziala). Erakunde kontratugileak ez du lan-erantzukizunik (laneko segurtasun, higiene eta osasunari dagokiena barne), ez eta Gizarte Segurantzari edo zerga-esparruari lotutako erantzukizunik ere, kontratistak zuzenean edo zeharka hartu dituen betebeharrei dagokienez. Modu berean, kontratistak bere gain hartu beharko ditu kontratuaren gauzatzean gerta daitezkeen ezbeharren ondoriozko erantzukizunak.

f) Dagokionean eta izaera bereziarekin **Karatularen 15. puntua**k zehazten dituen baldintzak betetzera behartuta dago kontratista.

21. FUNTSEZKO KONTRATU BETEBEHARRAK

Honakoak funtsezko kontratu-betebeharrak izango dira:

a) Kontratua betebehar nagusia betetzea, bere klausuletan Plegu honetan eta Baldintza Teknikoen Pleguan, kontratistak aurkeztutako eskaintzan eta kontratuaren arduradunak kontratistaren Koordinatzailearen bidez emandako jarraibideen arabera.

b) Lan arloan, Gizarte Segurantzari eta laneko segurtasun eta higieneari dagokienez indarrean dauden lege-xedapenak betetzea, Agiri honen 20. Klausulako b) letran ezarritako baldintzetan. Testuinguru horretan, aplikatu beharreko hitzarmen kolektiboan langilearen maila profesional bakoitzari ezartzen zaion ordainsaria ordaindu beharko du kontratistak. Aipatu ordainsariak ezingo du, inolaz ere, hitzarmenean jasotako horren azpitik egon.

c) Kontratistaren eskaintzan kontratuaren gauzatzeari konprometitu zaizkion giza baliabideak -propioak zein azpi-kontratatutakoak- eta/edo bitarteko materialak atxikitzea kontratuaren gauzatzeari.

d) Zuzendaritza- eta antolaketa-ahalmenak dituen Koordinatzaile bat izendatzea. Koordinatzaile hori izango da erakunde kontratatzailearekin harremanetan jartzeko solaskide bakarra, eta hari egokituko zaio kontratuaren xede diren zerbitzuen zuzendaritza, eta bera arduratuko da esleipendunak kontratua gauzatzera atxikitako gainerako pertsonei lan-aginduak eta -jarraibideak zuzenean emateaz.

e) Agindu guztiak, lan egiteko irizpideak eta gidalerroak adieraztea langileei; hala, erakunde kontratatzaileak ez du inolako loturarik izango lan harreman horiekin, eta, edozein kasutan ere, ez du haietan eragingo. Orobat, kontratistak soilik aztertuko ditu langileen lan ordutegiak, ordu lizentziak edo baimenak, oporrak edo enplegatzailearen ahalmenen beste edozein adierazpen. Alabaina, kontratistak soilik arduratu behar du zerbitzua behar bezala ematen dela ziurtatzeaz, agirietan finkatu den moduan.

f) Jarduera garatzeko behar diren lizentzia eta baimen guztiak bere kontura lortzea.

IFK-CIF Q2000541I

g) Uneoro indarrean dagoen arloko araudia betetzea zerbitzuen eskaintzan. Xede horietarako, kontratistak zein kontratistaren langileek egiaztagiri guztiak izan beharko dituzte, indarreko legediak edozein unetan eskatzen dituen baldintza guztiak betetzen direla frogatu ahal izateko.

h) Behin betiko bermeak mantentzea eta berritzea.

i) Kontratua gauzatzen den bitartean, Agiri honen 25. Klausulan kontratistari eskatzen zaizkion estaldurak eta aseguruak kontratatuta edukitzea, gutxienez.

j) Kontratua gauzatzeko eragiketen ondorioz hirugarrenei eragin ahal zaizkien kalte galera guztien kalte ordainak.

k) Kontratua behar den bezala garatu eta bete ahal izateko erakunde kontratugileak beharrezkotzat jotzen dituen zerbitzuak eskaintzea, ordainketa gehigarririk jasotzeko eskubiderik gabe; esaterako, laneko bileretara edo bilera informatiboetara bertaratzea. Betebehar hori kontratua amaitu arte mantenduko da.

l) Greba kasuan, zerbitzuak beteko dira. Zerbitzuak bermatzea ezinezkoa balitz, erakunde kontratugileak ahalmena izango du zerbitzuak eskaintzeko beharrezkoak diren kontratuak sustatzeko; kasu horretan, fakturaziotik kenduko da kontratu horiei dagokien zenbatekoa.

Greba garaian, benetan egindako zerbitzuei dagokien prezioa baino ez da ordainduko.

m) Langileak aldatzea beren funtzioa behar besteko arduraz eta efizientziaz beteko ez balute, langile horiek behar adinako gaikuntzarik izango ez balute, zerbitzuak ematean kontu gutxi izango balute edo kontratua ongi garatzeko kaltegarri diren ekintzak burutuko balituzte. Hori, beranduenez hogeita lau orduko epean erakunde kontratatzaileak kontratistaren Koordinatzaileari horretarako eskaera egiten duenetik. Langileen aldaketek ez dute ekarriko inolako erantzukizunik erakunde kontratatzailearentzat, kontratistak eragindako langileekin dituen harremanei dagokienez.

Langile horiek, beren jarduera hasi aurretik, dagokion baimena dutela egiaztatu beharko dute.

n) Gaixotasun, oporraldi, baimen, lizentzia edota istripuen ondoriozko bajek eragindako lan-absentziak estaltzeko ordezko langileak ipintzea; kontratatutako zerbitzuak behar bezala eta modu jarraituan ematen direla bermatuz. Hori, beranduenez hogeita lau orduko epean erakunde kontratatzaileak kontratistaren Koordinatzaileari horretarako eskaera egiten duenetik.

o) Agiri honetan, Azalean edota datu pertsonalen babesari dagokionez aplikagarri diren araudi nazionalean eta Europar Batasuneko araudian aurreikusitakoarekin bat etorriz datu pertsonalak babesteari dagokionez bete behar diren betebeharrak betetzea eta horiek bete direla egiaztatzea.

p) Dagokionean, eta izaera bereziarekin, **Karatularen 16. puntua**k jasotzen dituen betebeharrak betetzea.

Klausula honetan eta **Karatularen 16. puntua**n barne hartutako betebeharrek funtsezko kontratu-betebeharren izaera izango dute SPKLren 211.f) artikuluan aurreikusitako

IFK-CIF Q2000541I

ondorioetarako. Horiek urratzea kontratua suntsiarazteko arrazoi izan daiteke, erakunde kontratugileak nahi badu.

22. DATU PERTSONALEN BABESA

Kontratistak datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduan eta Datu Pertsonalak Babesteari eta Datuak Bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan aurreikusitakotik eratorritako betebeharrak bete beharko ditu. Eskubide digitalak bai eta datu pertsonalen babesari buruzko estatuko eta Europar Batasuneko beste edozein araudi ere, baldin eta aplikagarria bada kontratua indarrean dagoen bitartean, bere jardueren esparruan eta bere kabuz egiten dituen datu pertsonalen tratamenduengatik, kontratu horren arduradun gisa.

Betebehar hori ezartzen da, hargatik eragotzi gabe **Karatulako 17. puntuan** berariaz ezartzen dena, erakunde kontratugile bakoitzaren eta/edo tratamenduaren arduradun diren hirugarren erakundeen kontura datu pertsonalak tratatzeari dagokionez.

23. KONFIDENTZIALTASUNA ETA SEKRETU BETEBEHARRA

IFK-CIF Q2000541I

Informazio publikorako sarbideari dagokionez indarreko legediak dioenari eta esleipenaren publizitateari dagokionez hautagaiei eta lizitatzaileei eman beharreko informazioari dagokionez SPKLn xedatzen denari kalte egin gabe, erakunde kontratugileak ezin izango du zabaldu lizitatzaileek beren eskaintza aurkezterakoan konfidentzialtzat jo duten informazioa. Konfidentzialtasunak ondokoak hartzen ditu barne: teknika edo merkataritza-sekretuak, proposamenen osagai konfidentzialak eta lehiaketa (lizitazio-prozedura hau zein etorkizuneko beste batzuk) desitxuratzeko gaitasuna duten beste informazio guztiak.

Kontratistak, bere aldetik, kontratua gauzatzeko eskuratzen eta ematen duen informazioaren konfidentzialtasuna gordeko du, agirietan edo kontratuan izaera hori ematen bazaio edo berez konfidentzialtzat tratatu behar bada.

Konfidentzialtasuna gordetzeko betebeharra **Karatularen 18. puntua**n ezarritako epean zehar mantenduko da indarrean.

24. ERANTZUKIZUNA

Kontratistak izango du egiten dituen prestazioen eta zerbitzuen kalitate teknikoaren erantzukizuna, baita kontratua gauzatzean egiten dituen utzikeriek, akatsek, metodo desegokiek edo ondorio okerrek erakunde kontratugileari edo hirugarren batzuei eragin diezazkieketen ondorioena ere.

Kontratistaren betebeharra da kontratua gauzatzeko eragiketen ondorioz hirugarrenen gainean eragin daitezkeen kalte eta galerengatik kalte ordainak ordaintzea.

25. ASEGURUAK

Kontratistak **Karatularen 20. puntua**k ezartzen dituen aseguruak kontratatu beharko ditu, bere kontura, kontratuaren epealdi guztirako. Puntu horretan ezarritako baldintzak bete beharko ditu ere.

26. JABETZA INTELEKTUAL ETA/EDO INDUSTRIALA

Kontratistak erabilera eta/edo ustiapen baimen eta eskubide guztiak lortuko ditu, iturri baimenduetatik eta bere kontura, Agiri honetan eta Baldintza Teknikoen Pleguan ezarritakoaren arabera kontratuaren xede diren zerbitzuak eskaini ahal izateko beharrezkoak diren informatika-ekipamendu, ekipo eta/edo bitarteko guztiak erabili ahal izateko.

Kontratazio honetan, halaber, SPKLren 308.1. artikuluan xedatutakoa aplikatuko da. Honela, kontratuaren xede diren zerbitzuen gauzatzeak ematen dituen edozein emaitzak, betiere edozein erakunde kontratugilearentzat egindako, pentsatutako, diseinatutako edo garatutakoak, eta Jabetza Intelektual eta/edo Industrial motako eskubideen bitartez babestu daitekeenak -osotasunean edo prozesuaren edozein fasetan- dagokion erakunde kontratugilearen jabegoa izango dira soilik. Hori guztia, alde batera utzi gabe egile-eskubide moralak eta/edo asmatzaile gisa onartua izateko eskubidea, zeinak, Jabetza Intelektualari buruzko Legearen testu bategina onartzen duen apirilaren 12ko 1/1996 Legegintzako Errege Dekretuan eta/edo Patenteei buruzko uztailaren 24ko 24/2015 Legean ezarritakoaren arabera, kontratistari baitagozkio, eta erakunde kontratatzaileek behar bezala bete beharko baitituzte.

Ondorioz, eta **Karatularen 19. puntua**k, dagokionean, berariaz jasotzen duenari kalte egin gabe, kontratistak kontratuaren xede diren zerbitzuen emaitza era baketsuan erabiltzeko aukera bermatuko dio erakunde kontratugileari. Ondorioz, emaitza horren edozein osagairen gaineko baimen eta eskubideak legez eta iturri zilegietatik lortzeko konpromisoa hartuko du eta emaitza entregatzerakoan, kontratazio honen ondorioz dagokion erakunde kontratugileak dituen eskubideak urratzen dituen konpromisorik edo kargarik ez dagoela adierazi beharko du.

Nolanahi ere, kontratista izango da erantzule bakarra kontratutik kanpo dauden hirugarrenek Jabetza Intelektualaren eta/edo Industrialaren inguruan egin dituzten erreklamazio guztien aurrean, beti ere erreklamazio horien gaia ondokoa bada:

- Jabetza Industrial edo Intelektualeko eskubideen bidez babesturiko material, erreminta eta beste tresna guztien erabilera zerbitzuen eskaintzan.

- Kontratazio honen xede diren zerbitzuen emaitza eta/edo emaitza horren edozein osagai.

Aurrekoaren harira, aipatu gaien inguruan egindako erreklamazioen ondorioz edozein erakunde kontratugileak ordaindu behar dituen kalte-ordainak ordaindu beharko dizkio kontratistak erakunde kontratugileei.

Aurreko guztiaren ondorioz eta/edo Karatularen 19. puntuak berariaz ezartzen duenaren ondorioz egindako ordainketa Karatularen 6. puntuan zehaztutako kontratuaren prezioaren barruan dagoela ulertuko da.

27. ZEHAPENAK

27.1. ATZERAPENENGATIKO ZEHAPENAK

IFK-CIF Q2000541I

Kontratistak Agiri honetan eta/edo Karatulan zehaztutako epe guztiak bete beharko ditu.

Kontratista berandutze-egoeran jartzeko, ez da beharrezkoa izango erakunde kontratatzaileak aldez aurretik agindeirik egitea.

Kontratistak, berari egotzi dakizkiokeen arrazoiak direla-eta atzerapenak izan baldin baditu Azalean, Pleguetan edo eskaintzan adierazitako epe edo ordutegiak betetzea erakunde kontratugileak, kasuaren egoera zehatzak aztertu ondoren, kontratua bertan behera uztea edo, horren ordez, **Karatularen 21. puntua**n zehaztutako zehapenak inposatzea erabaki dezake.

Berandutzearen ondoriozko zehapenak kontratuaren prezioaren -BEZ-a kanpo- % 5aren multiplo batera iristen diren bakoitzean, kontratazio-organoak ahalmena izango du kontratua bertan behera uzteko edo kontratua zehapen berriak ezarriz gauzatzen jarraitzeko.

Aurreko idatz-zatietan jasotako eskumen berdinak izango ditu, erakunde kontratugileak, epe partzialen ez-betetzeari dagokionez, aipatu egoera Agirietan edo Karatulan aurreikusia badago edo epe partzialen ez-betetzeak azken epea beteko ez dela pentsatzera badaramate.

27.2. ZEHAPENAK, KONTRATATUTAKO ZERBITZUAK AKATSEKIN EMATEAGATIK EDO KONTRATUKO BESTE EDOZEIN BALDINTZA EZ BETETZEAGATIK.

IFK-CIF Q2000541I

Kontratistak, berari egotzi dakizkiokeen arrazoiak direla-eta kontratatutako prestazioen gauzatze akastuna egin badu edo SPKLren 76. artikuluaren 2. atalari eta 202. artikuluaren 1. atalari jarraiki ezarritako konpromisoak edo gauzatze-baldintza bereziak bete ez baditu, erakunde kontratugileak **Karatularen 21. puntua**n zehaztutako zehapenak ezarriko ditu.

Kontratistak, berari egotzi dakizkiokeen arrazoiak direla-eta kontratuan zehazturiko prestazioen exekuzioa partzialki beteko ez balu erakunde kontratugileak, kasuaren egoera zehatza aztertu ondoren, kontratua bertan behera uztea edo, horren ordez, **Karatularen 21. puntua**n zehaztutako zehapenak inposatzea erabaki dezake.

Karatulako 21. puntuan adierazitako zigorrak egiaztatutako kalte eta galeren batura izango dira.

Klausula honetan aurreikusitako zehapenak kontratuaren arduradunak proposatuta -horrelakorik balego- Kontratazio-organoak hartu duen akordio baten bitartez onartuko dira. Akordioa berehala exekutatu beharko da eta zehapenak burutzeko, kontratistari ordainketa osoa edo zatikoa egiteko ordaindu beharreko kopuruak kenduko zaizkio, edo dagokion behin betiko bermetik kenduko zaizkio, aurreko kasuan adierazitakoa egitea ezinezkoa denean.

28. KONTRATUA LAGATZEA

SPKLren 98. artikuluak kontratistaren ondorengotzaren inguruan jasotzen dituen baldintzak alde batera utzita, baimendutako kontratuaren aldaketa subjektibo bakarra kontratuaren lagapena da, Klausula honetan ezarritako mugekin eta beti ere **Karatularen 22. puntua**k aukera hori berariaz jasotzen badu.

Lagapena egian ahal izateko, SPKLren 214.2 artikuluko a), b), c) eta d) hizkietan ezarritako baldintzak bete beharko dira, hau da:

a) Kontratazio Organoak lagapena aurretiaz eta berariaz baimendu beharko du, SPKLren 214.2.a) artikuluan jasotako baldintzetan. Baimen-eskaeraren ebazpena jakinarazteko epea bi hilabetekoa izango da. Jakinarazpenik ez balego epea amaitua, baimena eman dela ulertuko da.

b) Lagatzaileak kontratuaren zenbatekoaren % 20a gutxienez gauzatua izan beharko du, SPKLren 214.2.b) artikuluan jasotako baldintzetan.

c) Lagapen-hartzaileak sektore publikoarekin kontratatzeko gaitasuna izan beharko du, eskatutako kaudimen ekonomiko eta finantzarioa eta teknikoa edo profesionala eta ez du kontratatzeko debekurik izango, SPKLren 214.2.c) artikuluan jasotako baldintzetan.

d) Esleipendunaren eta lagapen-hartzailearen arteko lagapena eskritura publiko bidez formalizatuko da, SPKLren 214.2.d) artikuluan jasotako baldintzetan.

Lagapen-hartzaileak lagatzaileari dagozkion eskubide eta betebehar guztiak bere gain hartuko ditu.

29. AZPIKONTRATAZIOA

IFK-CIF Q2000541I

Kontratistak prestazioaren zati baten gauzatzea hirugarrenekin azpikontrata dezake, Klausula honek eta SPKLren 215. artikuluak diotena betez, **Karatularen 23. puntua**k dagokionean ezartzen dituen prestazioak kenduta.

Nolanahi ere kontratistak, kontratua esleitua izan eta gero eta, asko jota, kontratuaren gauzatzearekin hasten denean, idatziz jakinarazi beharko dio Kontratazio Organoari azpikontratazioak egiteko duen nahia. Azpikontratatu nahi den zatia adierazi beharko du, bai eta azpikontratistaren izena, harremanetarako datuak eta legezko ordezkaria edo ordezkariak ere. Horrez gain, honek lana gauzatzeko duen gaitasun nahikoa azaldu beharko du, bere bitarteko teknikoak eta giza baliabideak eta eskarmentua aipatuz. Azkenik, SPKLren 71. artikuluan zehaztuta dauden kontratatzeko debekurik ez duela egiaztatu beharko du ere.

Kontratu nagusiaren gauzatzean zehar aldaketaren bat balego aurreko informazio guzti horretan, kontratista nagusiak aldaketa hori idatziz jakinaraziko dio Kontratazio Organoari, bai eta azpikontratista berrien inguruko beharrezko informazio guztia ere.

Azpikontratistak sailkapen egokia balu azpikontratazioaren xede den kontratuaren zatia gauzatu ahal izateko, egoera hori egiaztatzea nahikoa izango da azpikontratistaren kaudimena frogatzeko.

Azpikontratistaren gaitasunaren egiaztatzea azpikontratazioa sinatu eta berehala egin ahal izango da, azkena larrialdi-egoera bat konpontzeko beharrezkoa bada edo premiazko neurriak ezartzea eskatzen badu eta larritasun edo premia hori behar bezala justifikatzen bada.

Azpikontratistek kontratista nagusiarekiko soilik izango dituzte betebeharrak. Azken hori izango da, beraz, erakunde kontratatzailearen aurrean kontratua egikaritzearen gaineko erantzukizun osoa beregain hartuko duena, Pleguak eta kontratuko baldintzak zehaztasun osoz betez, SPKL legeko 201. artikuluan ingurumen, gizarte edo lan arloan aipatzen diren betebeharrak betetzea barne, nahiz aipatutako SPKL legeko 202. artikuluko 1. ataleko azken lerroaldean aipatzen den betebeharra, datu pertsonalen babesari dagokionez araudi nazional nahiz Europar Batasunekoaren mende egoteari buruzkoa.

Kontratista nagusiak egin dituen azpikontratazioen inguruan erakunde kontratugileak duen ezagutzak ez du kontratista nagusiaren erantzukizun esklusiboa aldatuko.

Azpikontratistei eta hornitzaileei eginiko ordainketak, eta ordainketa horien egiaztatzeak, SPKLren 216. eta 217. artikuluek diotenaren arabera egingo dira.

30. KONTRATUAREN ALDEKETAK

Kontratazio Organoak kontratua aldatu ahal izango du, SPKLren 205. artikuluan aurreikusitako kasuetan.

Kontratazio Organoak SPKLren 205. artikuluan jaso dituen kasuetarako adostu dituen aldaketak derrigorrez bere egin beharko ditu kontratistak, guztiak batuta edo banan-banan kontratuaren hasierako prezioaren (BEZ kanpo) % 20tik beherako kopuru-aldaketa suposatzen badute.

Horrez gain, **Karatularen 24. puntua**k aukera hori berariaz jasotzen badu, Kontratazio Organoak kontratua aldatu ahal izango du, puntu horretan ezarritako baldintzetan.

Kontratua aldatzeak ez du kontratuan jasota ez dauden unitate-prezio berrien ezarpena ekarriko, inolaz ere.

Kontratuaren aldaketak SPKLren 153. artikuluak dioenari jarraiki formalizatuko dira.

IFK-CIF Q2000541I

31. HARRERA ETA BERME-EPEA

Kontratua guztiz beteko du kontratistak zerbitzugintza osorik egin duenean, betiere kontratuan adierazitako terminoetan eta erakunde kontratugilearen adostasunarekin.

Nolanahi ere, betetze hori egiaztatzeko harrera- edo onespen-egintza formal edo positibo bat gauzatuko du erakunde kontratugileak **Karatularen 25. Klausulan** ezarritako epearen barruan.

Erakunde kontratugileak erabakiko du kontratistak egindako prestazioak kontratua betetzeko ezarritako baldintzekin bat ote datozen eta, hala badagokio, kontratatutako prestazioak eskaintzeko eta prestazioak jasotzean antzemandako akatsak zuzentzeko eskatuko dio

Kontratistari egotz dakizkiokeen akatsen ondorioz lanak kontratatutako prestazioarekin bat ez badatoz, erakunde kontratugileak horiek bazter ditzake eta ez du ordainketarik egin beharko edo, hala badagokio, ordaindutako prezioa berreskuratzeko eskubidea edukiko du

Hori guztia 27. Klausulak dioenari kalte egin gabe, erakunde kontratugileak egoki deritzon zehapenak eska baititzake egondako atzerapenen, kontratuaren ez-betetze partzialaren edo betetze akastunaren ordainean.

Bermealdia **Karatularen 25. puntua**n zehaztua dago.

Bermealdian egindako lanetan akatsak daudela ziurtatzen bada, Kontratazio Organoak eskubidea edukiko du kontratistari akats horiek konpon ditzan erreklamatzeko

Berme-epea amaitzean dagokion erakunde kontratugileak ez badu erreklamaziorik egin edo Karatula honetan adierazitako salaketarik egin, kontratistak ez du erantzukizunik edukiko eskainitako zerbitzuaren gainean.

32. KONTRATUA ETETEA

Erakunde kontratugileak kontratua etetea erabakiko balu edo aipatu etetea SPKLren 198.5 artikuluan jasotakoa aplikatu ondoren gertatu bada, akta bat egingo da, ofizioz edo kontratistak eskatuta. Aipatu aktak eragina izan duten inguruabarrak eta gauzatzean izandako egitatezko egoera jasoko dira.

Etetea adostua, pairatu dituen kalte-ordainak ordainduko dizkio erakunde kontratugileak kontratistari, SPKLren 208.2 artikuluan zerrendako arauei jarraiki.

33. KONTRATUA AMAITZEA

Ondokoen ondorioz iraungiko da kontratua: bete edo burutu egin delako edo jarraian araututakoaren arabera adostutako erabakiaren ondorioz.

Kontratua bertan behera uzteko zioak ondokoak dira:

a) Kontratistaren heriotza edo ezintasuna, edo sozietate kontratistaren nortasun juridikoa bertan behera geratzea, 98. artikuluak kontratistaren ondorengotzaren inguruan dioenari kalte egin gabe.

b) Konkurtsoaren deklarazioa edo kaudimengabeziaren deklarazioa beste edozein prozeduran.

c) Erakunde kontratugilearen eta kontratistaren arteko adostasuna.

d) Kontratistak epeak betetzean berandutzan erortzea.

e) Atzerapena egotea ordainketan, erakunde kontratugilearen aldetik, 198.6 artikuluak ezartzen duen epea baino luzeagoa den epean.

f) Kontratuaren betebehar nagusia ez betetzea.

   Kontratua iraungitzeko zio izango dira, halaber, beste funtsezko betebehar guztien ez-betetzea, beti ere izaera hori aitortu bazaie SPKLren 211.f) artikuluak dioenari jarraiki.

g) Prestazioa hasieran adostutako baldintzetan gauzatzeko ezintasuna, SPKLren 204. eta 205. artikuluen arabera ez badago kontratua aldatzerik; edo SPKLren 205. artikuluan jasotako baldintzak ematen direnean, aldaketa horiek aldaketak ekartzen dituztenean kontratuaren prezioan eta hauek, guztiak batuta edo banan-banan, kontratuaren hasierako prezioaren (BEZ kanpo) % 20tik gorako kopuru-aldaketa suposatzen badute.

h) SPKLren 313. artikuluaren 1. atalak jasotzen dituen kontratua bertan behera uzteko zioak; ondokoak, alegia:

   1. Zerbitzuak ematen hasi aurretik atzera egitea edo, kontratazio-organoari egotz dakiokeen arrazoiren batengatik, kontratuari ekitea etetea, kontratuan kontratuari hasiera emateko ezarritako egunetik lau hilabete baino gehiagoz.

IFK-CIF Q2000541I

2. Zerbitzua gauzatzeari uko egiten bazaio aipatu gauzatzea hasi eta gero edo Kontratazio Organoak zortzi hiletik gorako epean etetea erabakitzen badu.

i) Kontratistak beren ordainsariak ez ordaintzea, kontratuaren gauzatzean zehar, kontratua gauzatzen duten langileei. Edo langile horientzat aplikagarriak diren hitzarmen kolektiboen baldintzak ez betetzea, kontratuaren gauzatzean ere.

Kontratua bertan behera uzteko zioak SPKLren 212. artikuluak ezarritakoa betez aplikatuko dira.

Kontratua bertan behera uzteak izango dituen eraginak SPKLren 213. eta 313. artikuluek jasotzen dituztenak dira.

34. DONOSTIA KULTURA ENPRESA ERAKUNDE PUBLIKOAREN ESKUMENAK.

Kontratistak DONOSTIA KULTURA ENPRESA ERAKUNDE PUBLIKOAREKIN sinatuko duen kontratuarekin lotuta, kontratazio organoak ditu, SPKL legean adierazitako mugen barnean eta hartan adierazitako betekizun eta ondorioen baitan, ondokoak dira kontratazio organoaren eskumenak: kontratua interpretatzea, hura betetzeak sor ditzakeen zalantzak ebaztea, interes publikoko arrazoiengatik aldatzea, kontratuaren exekuzioari dagokionez kontratistari egotz dakiokeen erantzukizuna zehaztea, bere exekuzioa etetea eta bertan behera uztea eta horren ondorioak zehaztea.

Era berean, kontratistak DONOSTIA KULTURA ENPRESA ERAKUNDE PUBLIKOAREKIN sinatuko duen kontratuarekin lotuta, halaber, kontratistak kontratuaren exekuzioan zehar garatu dituen jarduerak ikuskatzeko eskumena dauka, SPKL-k kontratu mota bakoitzarentzat jasotzen dituen baldintza eta mugekin

DONOSTIA KULTURA EEPk SPKLren 191. artikuluak dioena betez gauzatuko ditu bere eskumenak.

35. ARAUBIDE JURIDIKOA

35.1 KONTRATISTAK DONOSTIA KULTURA ENPRESA ERAKUNDE PUBLIKOAREKIN SINATUKO DUEN KONTRATUAREN ARAUBIDE JURIDIKOA

Kontratistak DONOSTIA KULTURA ENPRESA ERAKUNDE PUBLIKOAREKIN sinatuko duen kontratuak izaera administratiboa izango du, SPKL Legeko 25.1.a) artikuluari jarraiki, horrela arautuz:

- Hura prestatu, esleitu, haren ondorio, aldaketa eta suntsipenari dagokienez, Administrazio Klausula Partikularren Plegu honekin eta Baldintza Teknikoen Pleguarekin, nahiz SPKL legearekin eta hura garatzeko xedapenekin. Ordezko modura, administrazio zuzenbideko gainerako arauak aplikatu dira eta, horiek egon ezean, zuzenbide pribatuko arauak.

Nolanahi ere, kontratua datu pertsonalen babesari buruzko estatuko eta Europar Batasuneko araudiaren mende egongo da.

IFK-CIF Q2000541I

35.2 KONTRATISTAK VICTORIA EUGENIA ANTZOKIA, S.A. ETA SAN TELMO MUSEOA, S.A. SOZIETATEEKIN SINATUKO DUEN KONTRATUAREN ARAUBIDE JURIDIKOA

Kontratistak VICTORIA EUGENIA ANTZOKIA, SA eta SAN TELMO MUSEOA, SA sozietateekin sinatuko dituen hurrenez-hurreneko kontratuek izaera pribatua izango dute SPKL Legeko 26.1.b) artikuluarekin bat etorriz, izan ere, sektore publikoko erakundeek egindako kontratuak dira, botere esleitzaile izanik Herri Administrazioaren izaerarik ez dutenak, horrela arautuz:

- Kontratuak prestatzeari dagokionez, Administrazio Klausula Partikularren Plegu honekin eta Baldintza Teknikoen Pleguarekin, eta hura esleitzeari dagokionez, Administrazio Klausula Partikularren Plegu honekin, Baldintza Teknikoen Pleguarekin eta, horietan aurreikusten ez denerako, SPKL legean horri dagokionez ezarritako arauekin (sektore publikoko erakundeek egindako erregulazio harmonizatupeko kontratuetarako, baldin eta botere esleitzailearen izaera bai baina Herri Administrazio ez badira).

- Kontratuen ondorioei eta iraungitzeari dagokienez, Administrazio Klausula Partikularren Plegu honekin, Baldintza Teknikoen Pleguarekin, eta, horietan aurreikusita ez dagoen guztian, zuzenbide pribatuko arauekin. Haatik, kontratuetan aplikagarri izango dira SPKL Legeko 319. artikuluan "Ondorioak eta iraungitzea" izenekoan ezarritako arauak.

Gainera, SPKL Legea eta Herri Administrazioen Kontratuen Legeko Erregelamendu Orokorra onartzeko urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretua aplikagarri izango dira Plegu honetan arauzko testu horietara jotzen den guztian.

Nolanahi ere, kontratua datu pertsonalen babesari buruzko estatuko eta Europar Batasuneko araudiaren mende egongo da.

IFK-CIF Q2000541I

36. JURISDIKZIOA

36.1 KONTRATISTAK DONOSTIA KULTURA ENPRESA ERAKUNDE PUBLIKOAREKIN SINATUKO DUEN KONTRATUAREKIN LOTUTAKO JURISDIKZIOA

SPKL Legeko 27.1.a) artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, administrazioarekiko auziekiko jurisdikzio-ordena izango da kontratua prestatu, esleitu, haren ondorio, aldaketa eta suntsitzearekin lotuta sortzen diren auziak ebazteko eskumena izango duena.

Hala badagokio, Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratuzko Errekurtsoen Administrazio Organoaren aurrean errekurtsoa ipiniko da, SPKL Legeko 44. artikuluan eta hurrengoetan aurreikusitakoarekin bat etorriz.

36.2 KONTRATISTAK VICTORIA EUGENIA ANTZOKIA, S.A. ETA SAN TELMO MUSEOA, S.A. SOZIETATEEKIN SINATUKO DUEN KONTRATUAREKIN LOTUTAKO JURISDIKZIOA

Administrazioarekiko auziekiko jurisdikzio-ordena izango da kontratuak prestatu, esleitu eta aldatzeari dagozkion auziak ebazteko eskumena izango duena, horien aurkatzea SPKL Legeko 204. eta 205. artikuluetan ezarritakoa ez betetzean oinarritzen denean, aldaketa horren ondorioz esleipen berri bat egin beharko litzatekeela ulertzen denean.

Dagokionean, errekurtsoa aurkeztuko da Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratu Errekurtsoen Administrazio Organoaren aurrean, SPKLren 44. artikuluan eta hurrengoetan aurreikusitakoaren arabera.

SPKL Legeko 27.2.a) artikuluan xedatzen denarekin bat etorriz, jurisdikzio-ordena zibila izango da aldeen artean kontratuaren ondorioekin eta hura suntsitzearekin lotuta sortzen diren gorabeherak ebazteko eskumena izango duena, Klausula honetako lehen lerroaldean aipatutako kontratuzko aldaketen kasuan izan ezik.

Donostian, 2022ko otsailaren 14ean

JOSE JAIME OTAMENDI MUÑAGORRI - 15986694S

Digitalki sinatuta norengandik: JOSE JAIME OTAMENDI MUÑAGORRI - 15986694S
Data: 2022.02.16 16:06:47 +01'00'

Jaime Otamendi Muñagorri jauna
Donostia Kultura EEPko Zuzendari kudeatzailea

IFK-CIF Q2000541I

I. Eranskina. Abal eredua.

[…] erakundeak (kreditu erakundearen edo elkarren bermerako sozietatearen izena), I.F.Z. […] eta helbidea (jakinarazpen eta errekerimenduetarako) […(e)an] dituenak, eta haren izenean […(e)k] (ahalordedunaren izen-abizenak), agiri honen behealdean adierazitako ahalorde askiestetik ondorioztatzen denez egintza honetan behartzeko behar beste ahalorde duenak […] honako honi ematen dio ABALA:

Erakunde abal-emaileak, bere erantzukizunpean, Herri Administrazioen Kontratuen Legearen Araudi Orokorra onesten duen urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuaren 56.2. artikuluan adierazitako betebeharrak betetzen dituela aitortzen du. Abal hori notario aurrean sinatzen da obligaziodun nagusiarekin solidarioki, esklusio-onurari espresuki uko eginda, eta […] lehen errekerimenduan ordaintzeko konpromisoa hartuta.

Abal hau indarrean egongo da […]k abala kitatzeko edo itzultzeko baimena eman arte.

[…]n, […](e)ko […]ren […](e)an.

[Sinadura]

IFK-CIF Q2000541I

II. Eranskina. Adierazpenen notario aktaren eredua, lizitatzaileak eskatzen den kaudimena ziurtatzeko edo gutxieneko bitartekoak kontratura atxikitzeko konpromisoa betetzeko beste entitate batzuen kaudimena eta/edo bitartekoak erabili behar baditu

[OHARRA: [Oharra: eskaintzarik onena aurkeztu duen lizitatzaileak eskatutako kaudimena eta/edo eskatutako baliabideak atxikitzeko konpromisoa egiaztatzeko hirugarren erakundeen kaudimenean eta/edo bitartekoetan oinarritu nahi badu soilik aurkeztu behar da. ***Hirugarren entitateak bete beharko du]***

[..] jaunak/andreak, N.A.N. [...] duenak, [...] enpresaren (I.F.Z:) legezko ordezkari gisa, adierazi du ezagutzen dituela [...] (enpresa lizitatzailearen izena) lizitatzaileak lehiatuko duen [...]a kontratatzeko lizitazioaren baldintzak, eta esleipendun suertatzen bada, kontratua gauzatzeko behar diren baliabideak lizitatzaile horren esku jartzeko borondate ezeztaezina adierazten duela, Kode Zibileko 1257.2. artikuluan xedatutakoa espresuki onartuta. Bere aldaketa edo ordezkapena […]k baimendu beharko du espresuki.

Idatzi hori aurkeztuz gero, […]k konpromiso hori onartzen duela adieraziko du, baldin eta lizitatzaile hori esleipendun gertatzen bada.

[…]n, […](e)ko […]ren […](e)an.

[Sinadura]

IFK-CIF Q2000541I

III. Eranskina. Europako Kontratazio Agiri Bakarra (EKAB).

[Oharra: kontratatzailearen profilean EKAB eredua eskuratu ahal izango da, pdf formatuan zein xml fitxategian]

IFK-CIF Q2000541I

IV. Eranskina. Giza baliabideak eta/edo bitarteko materialak atxikitzeko konpromisoa.

[…] jaunak/andreak, […] helbidea eta […] N.A.N. zk.a duenak, bere izenean, edo […] helbidea eta […] I.F.Z. dituen […]ren ordez, gaitasun juridiko eta jarduteko gaitasun osoz, ezagutzen du […]ren lizitazioa eta agiri honen bidez

AITORTZEN DU:

Kontratuaren esleipendun izanez gero kontratazio hau arautzen duen Karatularen 10. puntuan zehaztutako gutxieneko giza baliabideak eta/edo bitarteko teknikoak kontratuaren gauzatzeari atxikitzeko konpromisoa hartzen duela.

Eta horrela izan dela ziurtatzeko, eta dagozkion ondorioetarako giza baliabideak atxikitzeko konpromiso hau luzatu du […]n, […](e)ko […]ren […](e)an.

[Sinadura]

IFK-CIF Q2000541I

V. Eranskina. Aitorpen erantzulea, enpresako lanpostuen % 2a desgaitasunen bat duten pertsonentzat uzteko betebeharra eta berdintasun-plana izateko betebeharra betetzen direla adierazteko.

[…] jaunak/andreak, […] helbidea eta […] N.A.N. zk.a duenak, bere izenean, edo […] helbidea eta […] I.F.Z. dituen […]ren ordez, gaitasun juridiko eta jarduteko gaitasun osoz, ezagutzen du […]ren lizitazioa eta agiri honen bidez

AITORTZEN DU:

LEHENA [*50 langiletik gorako enpresek aurkeztu beharko dute]:* Langileen %2a gutxienez desgaitasunen bat duten langileak direla, 2013 Legegintzako Errege Dekretuak, azaroaren 29koa, desgaitasuna duten pertsonen eskubideei eta haien gizarteratzeari buruzko Lege Orokorraren Testu Bategina onartzen duenak, bere 42. artikuluan dioenarekin bat.

BIGARRENA [*250 langiletik gorako enpresek aurkeztu beharko dute*]: 3/2007 Lege Organikoak, martxoaren 22koa, Emakumeen eta gizonen berdintasun eragingarrirakoak, bere 45. artikuluan agintzen duen berdintasun-plana ezarrita duela.

[…]n, […](e)ko […]ren […](e)an.

[Sinadura]

IFK-CIF Q2000541I

VI. Eranskina. Formulak erabiliz ebalua daitezkeen irizpideei buruzko dokumentazioa.

[…] jaun-andreak, […] helbidea duenak eta […] N.A.N. zenbakiaren jabeak, […]-ren izenean edo hura ordezkatuz, helbidea duena eta […] N.A.N. edo I.F.Z. zenbakiaren jabea, ahalmen juridiko osoan eta jarduteko gaitasun erabatekoa izanik, […] prozedura bidez, […] kontratatzeko, honen bidez

ADIERAZTEN DU

a) Kultura-jardueretan pertsonei arreta emateko zerbitzuaren kontratua gauzatzeko konpromisoa hartzen duela, honako prezio hauen arabera:

1. **Proposamen ekonomikoa**:

Lanorduko eta irudiko aleko prezioak:

- **Laneko segurtasunaren, higiene industrialaren eta ergonomiaren espezialitateetan Laneko Arriskuen Prebentzioko goi-mailako Teknikaria**ren lanordu bakoitzeko eskainitako prezio unitarioa: […] euro/lanorduko (BEZ barne), honela banakatuta:

  - [..] euro/lanorduko (prezioa BEZik gabe).

  - [..] euro (BEZ).

- **Psikosoziologia aplikatuaren espezialitatean Laneko Arriskuen Prebentzioko goi-mailako Teknikaria**ren ordu bakoitzeko eskainitako prezio unitarioa: […] euro/lanorduko (BEZ barne), honela banakatuta:

  - [..] euro/lanorduko (prezioa BEZik gabe).

  - [..] euro (BEZ).

Urteko prezioa:

- **Baldintza teknikoen pleguko 3.2 atalean deskribatutako osasun-zaintzako espezialitateko prebentzio-zerbitzuek** eskainitako urteko prezioa, azterketa medikoak, kontsultak eta proba ginekologikoak izan ezik: […] euro (BEZ barne), honela banakatuta:

  - [..] euro (prezioa BEZik gabe).

  - [..] euro (BEZ).

Unitateko prezioak, aitorpen/kontsulta/proba mota bakoitzeko:

- **Osasun-azterketa oso** bakoitzeko eskainitako prezio unitarioa: […] euro/asterketa oso bakoitzagatik (BEZ barne), honela banakatuta:

IFK-CIF Q2000541I

- [..] euro/asterketa oso bakoitzeko (prezioa BEZik gabe).

- [..] euro (BEZ).

- **Analitikarik gabeko azterketa mediko** bakoitza analitikarik gabe egiteagatik eskainitako prezio unitarioa: […] euro/analitikarik gabeko azterketa mediko bakoitzagatik (BEZ barne), honela banakatuta:

  - [..] euro/analitikarik gabeko azterketa mediko bakoitzagatik (prezioa BEZik gabe).

  - [..] euro (BEZ).

- **Kontsulta ginekologiko** bakoitza egiteko eskainitako prezio unitarioa: […] euro/kontsulta ginekologiko bakoitzagatik (BEZ barne), honela banakatuta:

  - [..] euro/kontsulta ginekologiko bakoitzagatik (prezioa BEZik gabe).

  - [..] euro (BEZ).

- **Zitologia** bakoitzeko gehieneko prezio unitarioa: […] euro/zitologia (BEZ barne), honela banakatuta:

  - [..] euro/zitologia (prezioa BEZik gabe).

  - [..] euro (BEZ).

- **Ekografia ginekologiko** bakoitza egiteko gehieneko prezio unitarioa: […] euro/ekografia ginekologiko bakoitzagatik (BEZ barne), honela banakatuta:

  - [..] euro/ekografia ginekologiko bakoitzagatik (prezioa BEZik gabe).

  - [..] euro (BEZ).

- **Alde biko mamografia** bakoitza egiteko gehieneko prezio unitarioa: […] euro/alde biko mamografia bakoitzagatik (BEZ barne), honela banakatuta:

  - [..] euro/alde biko mamografia bakoitzagatik (prezioa BEZik gabe).

  - [..] euro (BEZ).

- **Ekografia baginal** bakoitza egiteko eskainitako prezio unitarioa: […] euro/ekografia baginal bakoitzagatik (BEZ barne), honela banakatuta:

  - [..] euro/ekografia baginal bakoitzagatik (prezioa BEZik gabe).

  - [..] euro (BEZ).

IFK-CIF Q2000541I

- **Bularreko ekografia** bakoitzeko eskainitako prezio unitarioa: […] euro/bularreko ekografia bakoitzagatik (BEZ barne), honela banakatuta:

  - [..] euro/bularreko ekografia bakoitzagatik (prezioa BEZik gabe).

  - [..] euro (BEZ).

b) Kontratua arautzeko duen kontratuzko dokumentazioa ezagutzen duela, berariaz beregain hartu eta onartzen duela osorik.

[…](e)n, […]ko […]aren […](e)an.

[Sinadura]

IFK-CIF Q2000541I

VII. Eranskina. Laneko arriskuen prebentzioaren alorreko betebeharrak betetzen direla ziurtatzen duen aitorpen erantzulea.

[…] jaunak/andreak, […] helbidea eta […] N.A.N. zk.a duenak, bere izenean, edo […] helbidea eta […] I.F.Z. dituen […]ren ordez (ordezkaritza-ahalmena zehaztu: administratzaile bakarra, ahaldun...), […] kontratatzeko prozedura ireki bidezko lizitazioaren ondorioetarako, agiri honen bidez

AITORTZEN DU

1. […] enpresak laneko arriskuak prebenitzeko egungo irizpideak bere eginkizunetan aktiboki barne hartu dituela eta azaroaren 8ko 31/1995 Legean, Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzkoa denean, eta berau garatzen duten xedapenetan xedatutakoa betez, Prebentzio Plan bat duela.

2. Kontratuaren esleipendun izanez gero, [...] enpresak ondoko konpromisoak hartuko dituela:

- Jarduerak garatuko dituzten langileei, dagozkien eginkizunak garatzean Segurtasunarekin eta Osasunarekin lotuta dituzten arriskuen berri ematea, bai eta arrisku horien aurrean ezar daitezkeen babes- eta prebentzio-neurrien berri ematea ere. Halaber, erakunde kontratugilearen Barruko Segurtasun Neurrien berri ematea bere langileei, lan egiten duten zentro bakoitzean.

- Erakunde kontratugilean edo erakundearentzat lan egingo duten langileei dagozkien zereginekin erlazionatutako Segurtasunaren eta Osasunaren alorretako alderdiei buruzko prestakuntza ematea.

- (Erakunde kontratugilean/tan) garatuko dituzten jardueretan bere langileek izango dituzten arriskuak identifikatzea eta Lan arriskuen prebentzioari buruzko 31/95 Legearen arabera Prebentzio-errekurtso baten presentzia eskatzen duten jarduerak identifikatzea; eta eginkizun horiek betetzeko bereziki prestatutako eta izendatutako langileak izatea.

- Erakunde kontratugilean edo erakundearentzat lan egingo duten langileei dagozkien zereginekin erlazionatutako babes-bitarteko egokiak eta beharrezkoak ematea, eta bitarteko horiek norbera babesteko ekipoei eta lan-ekipoei dagokienez ezarrita dauden indarreko lege-irizpideak betetzea.

  - Urtarrilaren 17ko 39/1997 EDn, Prebentzio Zerbitzuen Araudia onartzen duenean ezarritako baldintzak betetzea eta prebentzio-modalitate bat edukitzea, araudi horren arabera (Prebentzio Zerbitzu Propioa edo Besteren Prebentzio Zerbitzua).

  - Erakunde kontratugilean edo erakundearentzat lan egingo duten langileen osasuna zaintzeko kontrola egitea eta zereginak esleitzeko orduan bakoitzaren gaitasuna kontuan hartzea.

  - Eta gainontzekoan, azaroaren 8ko 31/1995 Legearen, Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzkoa denaren 24. artikuluan aurreikusitako koordinazio-neurriak betetzea eta urtarrilaren 30eko 171/2004 EDn, azaroaren 8ko 31/1995 Legearen, Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzkoa denaren 24. artikulua garatzen duenean enpresa-jardueren koordinazioaren alorrean aurreikusitakoak betetzea.

Eta horrela izan dela ziurtatzeko, eta dagozkion ondorioetarako, aitorpen erantzule hau sinatzen du [Lekua]n, […](e)ko […]ren […](e)an.

IFK-CIF Q2000541I

[Sin.:]
NAN:

IFK-CIF Q2000541I

VIII. Eranskina. Zerbitzariak non dauden eta horiei lotutako zerbitzuak non ematen diren adierazteko eredua.

[…] jaun-andreak, […] helbidea duenak eta […] N.A.N. zenbakiaren jabeak, […]-ren izenean edo hura ordezkatuz, helbidea duena eta […] N.A.N. edo I.F.Z. zenbakiaren jabea, ahalmen juridiko osoan eta jarduteko gaitasun erabatekoa izanik, […] prozedura bidez, […] kontratatzeko, honen bidez

ADIERAZTEN DU

1. Hurrengo taulan, kontratua gauzatzearen ondoriozko erakunde kontratatzailearen konturako datu-tratamenduari euskarria emango dioten zerbitzarien kokapena eta zerbitzariei lotutako zerbitzuak nondik emango diren zehazten da:

ZERBITZARIEN KOKAPENA
ZERBITZARIEI LOTUTAKO ZERBITZUAK EMATEKO LEKUA

IFK-CIF Q2000541I

2. Kontratuaren bizitzan zehar adierazpen honetan emandako informazioan edozein aldaketa gertatzen bada, aldaketa horren berri eman beharko duela aitortzen duela.

[…](e)n, […]ko […]aren […](e)an.

[Sinadura]